Xabier Amurrio - DBH. 4. Maila

(Esaldia falta)

BIZITZAREN ISTORIOAK

Gaur, uda beroaren eta maitasunez beteriko egunen atarian nago, zorionez beteriko nire etxe eder honetan. Familia dut sentimendu berezi nire bihotzean batez ere, nire emazte kuttun eta langiletik hasita nire seme azkar, txiki eta maitagarrira arte. Mendi bakar hauetan zelai orlegi batean bizi gara, hiriko jendetza eta kotxeen zaratatik at. Haize librea eta lasaitasuna ditut atsegin baita pasaia hauetako aberastasunak ere. Bizitza erosoa daramat, inongo beharrizan eta kezkarik gabe, gainera diru-kontuetan pribilegiatua naiz oso eta bizitza erabat eginda dudala esan dezaket. Baina nire 36 urte hauek ez dira zuek uste bezain onak izan, iraganean utzi ditudan oroitzapen gogor eta triste horiek, oraindik neure buruan jarduten dute, amets gaizto eta galdera sendo horien erantzun egokia ezin aurkiturik nabilela. Gizaki batek bizi ditzakeen egoera beldurgarri, gogor eta ezinezkoak bizi izan ditut, hauen artean negarra, beldurra, biolentzia, hotza, gosea, tristezia, heriotza eta abarrezko momentuak ere jasan ditut eta ezin dezaket gaur egun sentimendu horien zentzu eta deskribaketa aurkitu ezta zehaztu. Dena den, bizitzaren patuak oso urrun ekarri nau eta hau guztia zori handi eta jendearen laguntzari esker lortu dut. Azken urtean “Bizitzaren istorioak” argitaratu nuen, liburu honek pobreziatik atera ninduen, une honetan bizitzaren ikuspuntu ezberdina ezagutu nuen eta honen inguruan zeunden momentu gozoak. Liburu honetan kalean bizi izan nituen baldintza zailak narratzen ditut, kalean lo egiteak ekarri dizkidan gaixotasunak, drogak, gurasoak, lagunak eta ni baino maila altuago batean zeunden pertsonen jipoiak eta mespretxuak besteak beste.

gráficas amorebieta

Itxaropena, nire ustez, izan da gehienbat lagundu eta bizi mantendu nauena elizaren laguntza ahaztu gabe. Nire iraganaren eta gertaeren berri azaldu nahi dizuet, bizitzaren zentzu, bidea eta egoera hori bizitzen ari direnen benetako pertsonen bizitza lehenengo pertsonan argira eramanez eta gizarteko arazo larria dela kritikatuz, salatuz eta adieraziz.

-Baloreak, gurasoen saiakerak, errespetua, eta zentzua urte horietan galdu nituen, bai, nere kabuz jokatzen eta besteekin harremanak izan nituen denbora zail horietan. Bilboko “San Frantzizko” kaleko lonja txiki batean bizi ginen, ama eta anaia. Aita ez nekien nor zen ama utzi baitzuen ni jaio bezain laster. Oraindik ere oroitzen naiz, etxe madarikatu horretaz; hormak zulatuak zeuzkan eta ez geneukan urik ez argirik, amak sufritutako depresioen ondorioz zen guzti hau, geneukan diru guztia Bilboko kasinoan gastatu baitzuen. Lonja horretan komuna ere ez zegoen eta beharrizanak kanpoan egiten genituen. Ahora janaria eramateko zer esanik ez, amak etzuen lanik egiten, burutik ondo ez baitzegoen, anaia gaztea zen eta ni nire 14 urte horiekin zerbaiten bila joan behar nuen. Bilboko kale nagusi horiek ere oraindik gogoratzen dit, enpresaz beteriko lurraldea, kontaminazioa, jendea leku batetik bestera, “Athletic” deunaren partiduak, leku tristea zen nire iritziz baina jendeak atsegin zuen lanposturako leku finko eta hoberik ez baitzegoen erresuma osoan. Bilboko merkatuetan lapurtzen nituen ogia, fruta, eta ura. Lasai edo motel egiten nuen, orduak igarotzen nuen susmo hori ez areagotzeko. Egun horretan ezagutu nituen nire bizitzan markatu eta hutsunea utziko zituzten mutil horiek: Juan, Markos eta Leandro. Nire egoera berdin samarrean aurkitzen ziren eta tailer bat itxita zeraman pabiloi batean jarduten zuten, umezurtzak ziren eta. Hasiera batean, beraiekin identifikatuta sentitu nintzen eta ederrak egin nituen talde esanguratsu horren partaide izateko. Lagunek proba bat burutu zidaten, denda batean ostutzera alegia behartu ninduten nire ezeko jarrera mantenduko nuelarik. Baina ez; konturatu bezain laster beraiekin nengoen berriro, 25.000 pezeta gehiagorekin nire sakel hondatuan. Familia alde batera utzi nuen eta lagunekin beste lantegi itxi batera trasladatu nintzen, ez nuen ezertaz kezkatu behar, ama eta anaia elizara bidali nituen eta ni librea nintzen, nahi hainbat gauza egiteko.

Egunak pasa ahala jarrera aldatu zuten lagunek eta gero eta gehiago baztertzen ninduten, bakardadea eta benetako beldur hozgarria sentitu nuen lehengoz eta korrika ihes egiteko gogoa izan nuen. Bat batean egun zoragarri batean lagunak “gozokiz” beteriko poltsa baten truke lan txiki bat komentatu zidaten, banaketa bat alegia Karlos zeritzon tipo ezezagun bati. 5etan plaza aurrera hurbildu eta heldu bezain laster bost gizonek jipoi galanta eman zidaten, zauri dexente sortuz. Gau horretan ospitalean amaitu nuen. Lagun madarikatu horiek droga kontu batetan nahastu ninduten eta ondorio bezala nituen marka horiek. Polizia ni hartu eta umezurztegi batera eraman ninduten 18 urte bete izan arte.

Umezurztegi hura izan zen, alde batetik salmentan lagundu zidana eta bestetik sufritzea zer zen ikasi nuenean. Lehen egun horietan oharkabetuta jardun nuen baina beranduago beste partaideek nire ahuldadea eta biguntasuna nabaritu zutenean, ahurki jo zuten niregana eta motibo gabe behin eta berriz jipoitzen ninduten, lau baino gehiago normalean , mespretxu ugari ere sufritu nituen: aurpegira txua botatzen ninduten, arropak zikindu, janaria kendu... andereñoak ez zien nire baieztapenei jaramonik egiten eta aurre egiten nionean zapaldu eta

gráficas amorebieta

zigortu egiten ninduen. Beste aldetik, ordea, klase haiei oraindik laztan nabaria gordetzen dizkiet, nire ulermen letrak eta lehen esaldi horiek bertan ikasi bainituen. Idazten ikasi bezain laster iraganari buruzko gertaera eta kausa guztiak idatzi nituen geroaldi ez oso urrun batean "Bizitzaren istorioak" arrakasta izango zuen liburu horri ordezkatuz.

Umezurztegitik kanpo berriro libertadea zer zen ikusi eta bizi nuenean letrak izan ziren nire defentsarako eta barneko gorrotoentzako lagun posibleak, letrak nire barrua handitzen zuen erabat eta injustiziari aurka egiteko arma sendo gogor eta baliotsua zen. Kalean berriro ere egoera berdina jasan behar nuen, jendea erabat erotua, jendea oihuka, jendea urduri, jendea izerditan, jendea korrikan... Zer gertatzen da? Galdetzen nion neure buruari. Zerbaitek barnean esaten zidan gauzak txarrerantz zihoazela, zaratak barne, gauaren isiltasun beldur ikaragarria, letrak erabili nituen horren islada egiteko. Gure inguruan polizia areagotzen ari zen baita gure kale madarikatu negartian eta denbora aurrera joan ahala, arazoak areagotu egin ziren, eta non zegoen jada justizia?, eta gobernuko gorenen hitza?, non utzi behar halako jende baliogabea beraientzat? Ez, haientzako errazago zen lantegi eta kasinoak eraikitzea kaletarrei dirua lapurtzeko eta pobretzeko. Gure eskube eta laguntzak eskatzearen truke golpe ederrak jasan genituen eta jarrera pasiboaren ondorioz gauza bera.

Maiatzaren 19. eguneko goiz eguzkitsu hartan aurreztu nuen diru apurrarekin nire bizitza liburu batean grabatu nuen eta ez inoren laguntzari esker, nire sufrimendu, gorroto, maitasun, beharrizan eta usteei baizik. "Bizitzaren istorioak" nire bizitzaren ispilua da eta izenburu hau jarri nion ez nintzelako kasu bakarra eta nire sufrimendu hori ateratzeko. Hainbat aste salmentetan lehenengo postuan jardun ondoren "Premio Novel"-a irabazi nuen eta eskerrak eman nizkien sasoi gogor horren aurrean islada izan ziren lekuko guztiei.

Bizitzaren jatorria eta zirkunstantziez aparte ez da burua makurtu behar eta nahi dugunaren hori lortzeko saiakera bat egin behar da.

gráficas amorebieta

Arantza Kareaga Diaz - DBH. 4. Maila

"Zinema eta entzutea ditut gogoko. Munduan tratu txarrak behin betirako amaitzea gustatuko litzaidake."

HEGOAK IMAJINATZEN

Eguzkia ikus dezaket, zeru urdin zoragarrian. Itsasoa ikusi ez arren, imajinatu egin ahal dut, ur urdin garden eta garbiaz. Mendien puntak ikusten ditut, eta haietatik igarotzen diren errekastoak buruan marraz ditzaket, hango zuhaitzpean etzanda egonik entzun ahal izango diren txorien hots eta guztiekin. Nire buru barnean gauza asko ikus ditzaket, baita ni ispiluan begiratzean emakume eder eta polit bat, bere azal leun, garbi eta marka gabea ere. Baina nire gelako kristal zati hartan begiratzen naizen bakoitzean, inoiz imajinatu ezin izan dudan zerbait ikusten dut: aurretik emakume izandako bat begi eta ezpain ingurua more-urdin kolorez eta zauriz inguratua eta duela hamar urte izandako pertsonarekin antzik ez duena. Lepoa begiratzen badut, orbainez beteta ikus dezaket eta hondartzara joaten nintzenean eta bainujantzia jartzen nueneko garairen oroitzapen makal bat etortzen zait burura. Orduan ispilura berriz begirada bat botatzen dut, eta nire fantasiazko mundutik jaisten naiz.

Ezkondu nintzenean, maiteminduta ezkondu nintzen, nire bizitza izango zenaren ideia zoragarri bat nuen: nire bizitzako gizonarekin bizi ahal izango nintzen, pare bat seme-alaba izan eta lantxo bat edukiko nuen, non nire lanorduak bete. Guzti hau mugarik gabeko zorionarekin marrazten nuen neure buruan eta etengabeko poztasuna izango zela nire bizitzan uste nuen. Baina hamar urte pasatu dira nire bizitzako egunik zoragarriena izango zela imajinatu nuen egun hartatik, eta orain bizitzari beste begi batzuekin begiratzen diot, errealitatearen

gráficas amorebieta

begiekin, eta hauek zera ikustarazten didate: ez dudala seme-albarik, ez daukadala etxe honetako lau hormen barneak ematen didan lana baino, eta ni bizi naizen etxe honetan bizi den gizona nire bizia bizitzea zailago egiten duen pertsona dela baino.

Gaztea nintzenean, gaur egun nire senar dena ezagutu nuenean, munduko emakume zoriontsuena nintzela pentsatu nuen. Aste osoa larunbata noiz iritsiko ematen nuen berarekin geratu ahal izateko eta denbora batez astean zehar pasatutako esturak ahazteko. Nire bizitzako momenturik goxoenak izan ziren haiek, bera nire ametsetako mutila zen ni bere printzesa nintzen. Guztia zen zoragarri eta perfektua, baina orain gauzak asko aldatu dira.

Orain egun guztiak antzerakoak egiten zaizkit. Egunero esnatu, gosaldu, jantzi, erosketak egin, etxera itzuli, bazkaria prestatu, etxeko lanak egin eta gauean lotara joan. Horixe izaten da nik egunero egin beharra. Nire betebeharra betetzea gainean sufrimendu eta negargura baino ez daramadalarik. Autobus bat bere ibilbidea egiten bezala sentitzen naiz, beti ibilbide bera, egun batzuetan besteetan baino kargatuago baina beti berdin, beti berdina egiten jende aurrean malkoei eutsi ezin diedala.

Humore txarrez azaltzen denean etxean, nire barneak dar-dar egiten du eta ezkutatzeko gogoa izaten dut, non eta nola jakin gabe, badakidalako zer gertatuko den berak atea zeharkatu ondoren. Lurrean bukatuko dut gorputz guztian min dudala eta hurrengo egunean ezin izango naiz kalera joan eta ispiluan begiratzen banaiz, nire aurpegia guztiz handituta eta zauriz beteta aurkituko dut malkoak nire masailetan behera erortzen diren bitartean. Orduan nire gelara joan eta leiho ondoan eseriko naiz negar eta negar arituz hurrengo momentuetan. Negar, barrua lehortu arte eta gehiago egingo dut gelditu ezinik nire barnean dudan korapilo gogor eta handi ea noizbait askatuko ote den pentsatuz eta hurrengo eguna hobeto hasiko ote den amestuz, hori ezinezkoa dela jakin arren. Eta beti berdin, nire barnean gero eta sakonagoa egiten ari den zulo bat egunetik egunera sufrimendu eta beldur gehiagoz betetzen dioala.

Noizbait bere lagunen batekin zerbait hartzera atera garenean, bikote zoriontsuaren planta egin behar inork ezer sumatu ez dezan eta jende aurrean dena ongi doala eginez, gero etxera iristean datorkidana badakidan arren.

Nire lagunak aspaldi galdu nituen, nahi eta jakin gabe nire bizitza galdu eta bere esklabo bihurtu nintzenean hain zuzen ere. Duela hamar bat urte gertatu zen hori, eta aurretik nituen gauza gehienak galtzearekin bat dator garaia. Konturatu gabe lagunak, askatasuna, nortasuna, irribarrea eta bizitza galdu nituen, gaur egun nire gorputza zauritu baino ez egiten duen pertsona batengatik.

Orain ere nire gelan negar batean ari naiz, bart emandako jipoiak utzi dizkidan markak ikusi ondoren eta zaborraren hurrengo naizela sentitzean. Hori da negarra eragiten didan gauzetako bat eta leihotik begiratzean batzuetan ikusten ditudan txoriak bezala ihes egitea gustatuko litzaidake, nire imajinaziozko hegoak zabaldu eta hegan eta hegan egin urrutira, zoriona bakarrik existitzen den lurralde batera. Baina momentu honetan atea entzun dut, eta negarrari utzi diot, oraintxe etxera sartuko delako eta ez dakidalako zer gertatuko den.

gráficas amorebieta

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria - DBH. 4. Maila

"Barneko oihuak hitz bihurtzen direnean".

AMETS EGINEZ SOILIK

Mendi elurtsuak zeharkatu nahiko nituzke,
hodeietan jolas eta hegan egin,
zuhaitzen besoetan lokartu
eta dena perfektua dela amets egin.
Zurekin nagoela,
besarkatu egiten nauzula,
muxu goxo bat eman eta
"maite zaitut" esaten didazula,
gure artekoa ez dela inoiz bukatuko,
"dena ondo doa" esan ahal izatea.
Baina ametsa besterik ez da,
errealitatea izkutatzeko era bat,
lortu ezin dudana momentu batez sentitzeko gaitasuna.
Baina zu urruti zaude,
mendi gailurren atzetik,
ibai zurrumurrutsuei jarraituta,
hodei jostalariengandik urrun
baina nire bihotzetik hurbil.

gráficas amorebieta

Nire maitasunak berotuko zaitu neguan,
neronek emango dizkizut loreak udaberrian,
freskotasuna udaran
eta eskutitz batekin agurtuko zaitut udazkenean.
Nire ilusioak mugagabeak dira,
nahiz eta zu nigandik urrun egon
beti sentituko zaitut nire ondoan.
Zuk ez didazu minik egin nahi,
uler dezaket primeran,
zure sentimenduak errespetatu
eta lagunak izan gaitezke,
bihotzeko sekretuak elkarri kontatuko dizkiogu,
kolorez jositako mantu berdean etzango gara,
zerurantz begira hodeiei forma ezberdinak emanez

eta nire fantasien alde bat beteko dugu horrela.
Baina egunen batetan ohartu egingo naiz,
mundua, bizitza, dena beste era batean begiztatu
eta konturatu egingo naiz
zurekin denbora galtzen ari naizela,
zuk ez nauzula maite
nik maite zaitudan bezela,
zuk ez nauzula begiratzen
nik begiratzen zaitudan bezela,
zurekin alferrik ari naizela,
beste neska bat duzula begiko
eta bihotzak eztanda egingo dit,
nire begietatik bi anpulu izugarri
lurreraino eroriko dira talka egin arte,
kristal malutak bailira
milaka puxketan suntsituko dira.
Baina hainbeste sufrimendu jasan ondoren,
maitatuko nauen norbait aurkitu
eta nire printze urdina izango da.
Nik begiratzen diodan bezela
begiratuko nau berak ere,
gogor besarkatu eta ez dit inoiz ihes egiten utziko,
elkarrekin zerua miatuko dugu
eta azkenik zoriontsua izango naiz.
Baina egun hori oraindik heltzear dago,
gauza asko ditut ikasteko
bizitzak baino ez dizkidanak erakutsiko
eta begiak zabalduko ditut.

Baina orain, zuhaitzaren adarretan esnatu
eta amets egiteari utzi behar diot,
nire benetako maitasuna bihotzean dago.
amets eginez soilik
lortu dezaket nahi dudana,
amets egitea oso ederra da,
norberak erabakitzen du gertatuko dena,
momentu baten zoriontsu izateko gaitasuna.
Baina esnatzerakoan errealitatera itzuli
eta dena da ezberdina,
patua da erabakitzen duena
eta ezin daiteke ezer egin aldatzeko,
baina amets egitean norberak hartzen ditu erabakiak
eta dena da ederra,
hori ezin daiteke ukatu.
Beraz ni lotara noa eta ez nazala inork esna.

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Ibone Manzano - DBH. 4. Maila

"Lagunekin egon eta kirola egitea dira gustokoen ditudan ekintzak."

PIPA BATEN HISTORIA

Kepa Ibarrangeluko baserritar bat zen. Bere baratzean hainbat gauza zituen: tomateak, letxuak, indabak, piperrak... Bere semeek, Jon eta Xabierrek, pipa asko jaten zituzten eta ekilore bat landatzea bururatu zitzaion. Bere semeak irrikitan zeuden bertako pipak jateko. Handik hilabete batzuetara, uztailean, parketik etortzean pipak mahai gainean zeuden, haien artean Kizu. Kizu pipa berezia zen, bizia zuen eta ez zuen nahi inoren sabelean bukatu. Berehala labean sartu zituzten gatz pittin batekin. Amak esan zien:

-Minutu batzuk barru eginda egongo dira, zoazte jolastera, nik deituko dizuet.

-Ongi da- erantzun zuten haiek.

Kizuk labetik ihes egin nahi zuen. Besteekin hitz egiten saiatzen zen baina inork ez zion erantzuten, bera zen denen artean bizia zuen bakarra. "Plit", bat batean hankak eta besoak atera eta ihesari ekin zion. Labearen ertzera heldu zen, zulo bat zegoela konturatu eta ihes egitea lortu zuen. Bidaiaren zatirik zailena gelditzen zitzaion: gizakien artean ibili behar zuen, haiek jarritako oztopoak saihestu...

Bere lehenbiziko erronka minutu bat pasatu baino lehen heldu zen, Jon eta Xabier pipak jaten etorri zirenean. Ama erre egin zen eta pipa guztiak lurrera erori ziren; hain zuzen ere,

gráficas amorebieta

Kizuren ingurura. Hirurak batzen hasi ziren eta Kizu ere harrapatu zuten. Egongelara joan ziren telebista ikusteko. Zorionez platera zegoen mahaia ez zegoen lurretik oso urrun. Jauzi bat egin eta kalera irten zen. Eguraldia bere alde zegoen. Eguzkiak zeru urdinean diz-diz egiten zuen.

Landan etzan zen atseden hartzera. Arratsaldeko seiak ziren, Kepak behiak ateratzeko ohitura zuen ordua. Kizu ametsetan zegoen "muuu" entzun zuenean. Berehala altxatu eta korrika hasi zen. Behien hankak baino ez zituen ikusten. Izututa zegoen. Belar batekin estropozu egin zuen eta behi batek irentsi egin zuen. Behiak hausnar egin zuen. Kizu, behia janaria murtxikatzen ari zela aprobetxatuz, irten egin zen. Korrika hasi zen berriz.

Oraingoan errepidera iritsi zen. Auto mordoa zegoen. Bide bazterretik oinez zihoan lo egiteko txoko eroso baten bila. Denbora asko zeraman oinez eta nekatuta zegoen. Zerua iluntzen zihoan eta kotxe gutxiago zebilen errepidetik. Gelditu, beste aldera begiratu eta landa bat ikusi zuen. Bidea gurutzatu zuen gaua bertan igarotzeko. Hosto bat hartu zuen hotzik ez pasatzeko eta lo gelditu zen.

Hurrengo goizean oinez hasi zen berriz, hondartza ezagutu nahi zuen. Nonbait entzuna zuen Ibarrangelun bazegoela hondartza bat eta autoei jarraitu zien. Orduak eman zituen hondartzara heltzeko baina azkenean aurkitu zuen. Gaua zen eta ez zegoen inor bertan. Putzu bat aurkitu zuen eta pixka bat busti ondoren hareatzara joan zen gaua igarotzeko. Zulotxo bat egin zuen eta bertan sartu zen lo egitera. Goizean- goizetik gizon bat etorri zen bainua hartzera eta toaila Kizurengandik hurbil utzi zuen. Kizu gizona entzun eta zulotik irten zen, bidaia jarraitzeko asmoz.

Aurrera jarraitu zuen eta iluntzean txori asko zegoen leku batera iritsi zen, Padurara. Basatzan jolastu zuen eta txori baten lagun egin zen. Gaua txoriaren luma artean eman zuen berotzen. Itzartu eta txoriari agur esan zion bidaia jarraitu nahi zuelako. Txoriak Kizu errepideraino eraman zuen eta ibilaldiari ekin zion. Egunak eman zituen oinez, gauetan bide ondoko landetan lo eginez. Kortezubira heldu zen, noski, berak ez zekien non zegoen.

Errepidea zeharkatu eta aldats batetik behera joan zen. Santimamiñeko kobetan zegoen. Ume baten oinera igo eta barnerantz joan zen. Bisita egin ostean umea jada kanpoan zegoela konturatu zenean zapatilatik jaitsi zen. Koben alboko landa batean igaro zuen gaua.

Abuztuko lehen eguna zen eta eguraldi nahiko kaxkarra zegoen, zerua hodeitsu zegoen eta haizea firin- faran zebilen batetik- bestera.

- Ez da egun ona oinez ibiltzeko baina nire bidaia jarraitu behar dut- esan zion bere buruari Kizuk.

Aldatsa igo eta errepidera heldu zen berriz. Ordu batzuk eman zituen oinez Gernikara heldu zen arte. Sarreran polikiroldegi bat zegoen eta bertara sartu zen. Saskibaloiko partidu

gráficas amorebieta

bat jokatzen zeuden. Oso gustura ikusi zuen partidua eta barre batzuk egin zituen jokalari bat edo beste erori zelako.

Oinez hasi zen eta hilabete bat igaro ondoren Bilbora heldu zen. Hura oso handia zen Kizurentzat, kotxe asko zebilen hara eta hona, jendea presaka alde guztietara, umeak zarataka... Kizuk ez zuen gustuko giro hura. Fabrika gune batera iritsi zen. Bertan ere ez zegoen gustura, makinak denetik, jende mordoa oihuka... Gora begira zihoan “Fakundo” fabrikako horma batean pipa baten marrazkia ikusi zuenean. Harrituta geratu zen.

-Agian horrek berba egin dezake- pentsatu zuen.

Urrun zegoenez oihuka esan zion:
-Kaixo! Zer moduz?

Inork ez zion erantzuten. Harri batekin estropozu egin eta pipaz betetako kutxa batera erori zen. Ezin izan zuen ihes egin eta fabrikara eraman zuren beste guztiekin batera. Hortxe bukatu zen Kizuren bidaia, Kizu hil egin zuten. Lehenbizi aukeraketa fasea suertatu zitzaion. Nahiko handia zenez aukeratu egin zuten eta zinta mugikor batetik igarota kutxa batera bota zuten. Makina batek Kizu zegoen kutxari gatza bota zion. Ondoren kutxa labera sartu zuten. Bertan hamabost minutu igaro ondoren prest zeuden poltsetan sartzeko. Tamainaren arabera aukeratu zituzten berriz, hainbat motatako poltsak baitzeuden: gorriak, urdinak, azala kendutakoak... Kizu handia zenez gorrietarako aukeratu zuten. Makina bitxi batetik igaro zen, poltsan sartzeko eta zarratzeko. Kasualitatea izango zen baina poltsak Ibarrangeluko gozoki denda txikian bukatu zuen.

Igandea zen eta Xabier eta Jon mezatara joan ziren lagunekin. Beti bezala meza ostean dendara joan eta pipa pakete bana eskatu zuten. Normalean dendan poltsa urdineko pipak egoten ziren baina egun horretan poltsa gorrikoak zeuden. Kizuren poltsa Xabierri tokatu zitzaion. Poltsa berehala bukatu zuen eta denak jan zituen, berak ez zekielako Kizu bertan zegoenik. Kizuk bere ametsa bete zuen, pipa batentzat ezinezkoa zena, munduan zehar bidaiatzea.

gráficas amorebieta

Estibaliz Erleaga Aranaz - DBH. 4. Maila

“Gazte izanagatik oso ondo ohartzen naiz gure herriak dituen arazoez”

NIRE ERRUZ

Egun eguzkitsu eta zoragarri bat izan arren ni oso triste nago. Azkenik heldu da zorigaiztoko egun hau, nire lagun-minaren heriotzaren eguna. Telefonoa hartu eta entzun nahi ez nituen hiru hitzak entzun ditu: “Aitor hil da”. Momentu horretan mundua gainera zetorkidala pentsatu dut. Eta oroitzapen asko ekartzen zizkidan lekura joatea pentsatu dut, eskola atzeko mendian dagoen etxolara hain zuzen. Leku honek bera ondo zegoeneko momentuak ekartzen dizkit gogora.

Bere heriotzaren kausak pentsatzen hasi naiz, egoera horretara nola zen eta guztiaren erruduna ni naizela konturatu naiz, nire tontokerien errua. Nik gauza horiei garrantzirik emango ez banien orain nire alboan egongo zen eserita, nirekin hitz egiten.

Guztia orain dela pare bat urte hasi zen. Telebista ikusten geunden modako programa

gráficas amorebieta

horietako bat, denok dakigu nolakoak diren programa hauek, hezur eta azal diren neska-mutil gazteak aurrera eta atzera. Orduan, ispiluaren aurrean jarri eta nire gorputza begiratzen hasi nintzen. Haien ondoan lodi nengoela ikusi nuen eta dietan hasteko erabakia hartu nuen, asko gustatzen baitzitzaidan moda kontu hori, nahiz eta orain nazka ematen didan. Aitorrengana joan eta dietan hasteko asmoa nuela esan nion. Bere iritzia guztiz kontrakoa zen kontu honengan eta tontokeriarik ez egiteko esan zidan. Nik hala ere egin egingo nuela esan nion. Niri lagundu nahian medikuarengana joateko esan zidan aholkua eskatzera eta gero hartzeko hartu beharreko erabakia. Pentsatuko nuela esan nion. Egun pare batzuetara ea medikuarengana joan banaizen galdetu zidan eta nik baietz esan nion, gezurra! Orduan berak esan zidan:
Hori horrela bada, dieta egiten uzten dizut baina, hala ere, nire ustez ez duzu dietaren beharrik ondo zaude zauden moduan. Baina behin nahi dituzun kiloak kenduta dieta utziko duzula zin egin behar didazu.

Nik baietz esan nion eta egun pare batean dietan hasi nintzen. Lehenengo egunetan oso erraza izan ze baina astea pasatu ondoren dieta alde batera uzten nuen. Eta horrela hilabete osoan. Aitorrek hori ikustean laguntza eskaini zidan.
- Dieta txatxu hori hain garrantzitsua baldin bada zuretzat, prest nago zuri laguntzeko. Asko pentsatu ondoren dieta zurekin batera egingo dut. Baina beste dieta bat eta kirol pixka bat ere egingo dugu.

Nik ados nengoela esan nion eta asko eskertzen niola nigatik egiten ari zen guztia. Dietan hasi ginen, biok batera geundenez errazagoa izan zen gozokiei aurre egitea. Hilabetea pasatu ondoren galdu nahi zian nituen kiloak galdu nituen, Aitorrek ez ordea, mutila delako izango zen eta beste hilabete batez jarraitzeko proposatu zidan. Niri oso arraroa egin zitzaidan proposamen hori eta nire zalantzak izan nituen, gizartean dauden arazoak direla eta baina onartu egin nuen. 2.hilabetea ere bukatu zen eta gero eta nabarmenagoak ziren aldaketak. Familiarteko guztiak oso larriturik zeuden eta tontokeria horiekin bukatzeko garaia zela esan ziguten, hobe genuela ondo jan eta kirola egiten jarraitu. (Nik ere dietaren kontu hori eskuetatik joan zitzaigula uste dut).

Arrazoia zutela konturatu ginen, beno nintzen ze orain ikusita ez dut uste Aitorrek hori pentsatzen zuenik.

Uda gero eta gertuago zegon eta zoratzen nengoen hondartzara joan eta nire look berria erakusteko. Hain pozik nengoen nire aldaketarekin Aitorri jaramonik ere ez niola egin eta ez nintzen konturatu arazo larri bat zeukala. Egunak aurrera zihoazen eta gero eta argalago ikusten nuen, baina kirol asko egiten zuelako zela pentsatu nuen, zeinen tonta! Inoiz ez nuen pentsatuko horrelako gauza bat nire lagun minari gertatuko zitzaionik eta oraindik gutxiago moda kontuak nazka ematen zizkioten mutil bati, gainera nire tontokerien erruagatik.

Behin, beste askotan bezala, nire etxean geratu zen lo egiten. Film bat alokatu eta pizza batzuk jan genituen aspaldiko partez. Filma bukatu eta gero komunean aurkitu nuen botatzen. Berak pizzak kalte egin ziola esan zidan eta nik sinetsi egin nion normala zela iruditu

gráficas amorebieta

zitzaidalako horrenbeste egun pizza jan barik egoteagatik. Beste egun batean berriro ikusi nuen, oraingo honetan atzamarrak sartzen ikusi nuen eta tripako minez zegoelako egin zuela esan zidan. Oraingoan larritzen hasi nintzen, ez nekien zer egin edo inori ezer ez esan eta berarekin hitz egin edo bere amari esan. Inori ezer ez esatea erabaki nuen. Berarekin hitz egitera joan nintzenen gauzak lekutik ateratzen ari naizela esan zidan, ez kezkatzeko ez zela ezer txarrik egiten ari eta lasai egoteko bazekiela mundu horretan behin sartu ezkero zaila zela ateratzen. Bere hitzak laster eraman zituen haizeak, berriz ere komunean harrapatu bainuen. Berarekin serio hitz egitera joan nintzen, oraingo honetan arrazoia eman zidan, asteak zeramatzala berdina egiten esan zidan baina inori ez esateko ez zuelako berriz egingo. Nik inori ez niola ezer esango esan nion. Hala ere bere amarekin hitz egitera joan nintzen ez bainekien zer egin. Bere ama ere oso kezkaturik zegoen baten baino gehiagotan ikusi baitzuen berak ere. Hoberena profesional batekin hitz egitera joatea zela pentsatu genuen eta biok joan ginen aholku eske. Garaiz harrapatu genuela esan zigun eta oraindik atzera egiteko moduan dagoela. Berarekin hitz egin behar genuela esan zigun jatearen garrantziari buruz, moda zein mundu beltza den, familiakoek asko maite dutela eta gauza horietaz.

Hala egin genuen, hasieran asko haserretu zen baina azkenik konturatu zen, behintzat horrela uste genuen. Oso pozik geunden gehiago egin ez zuelako baina gure pozak pikutara joan ziren bi aste pasatu ondoren. Orduan ere ez genion ezertan ikusi baina gero eta ahulago zegoela ikusten genuen,oso errez nekatzen zen, gainera umore aldaketa handiak izaten zituen, ikaskide guztiekin haserretuta zegoen beti, bere notak ere asko jaitsi zituen eta horrela gauza guztietan. Nik ez nuen nire lagun-mina galdu nahi eta amak ere zer zuen bere semea galdu nahi, beraz, zentro batean sartzea erabaki genuen bere gogoz kontra. Hasieran ez ziguten uzten ikustera joaten eta berak ere ez zuen ezer jakin nahi gutaz. Han barruan egon arren eta oso kontrolatuta gero eta okerrago zegoen, bere amak negarrez pasatzen zuen egun guztia eta niri botatzen zidan errua. Nik ere hori uste dut orain baina orain berandu da. Lagun bat galdu behar izan dut horretaz konturatzeko bere amak ere ez dit hitzik egiten merezia daukat. Inoiz ez nuen pentsatuko beti modaren aurka egon den mutil gazte bat zulo beltz horretan sartuko zenik. Nire iritziz gizarteak dauka erru guztia, eta denbora guztian itxura gora eta itxura behera dabiltzanek, kasu honetan nik ere bai. Zergatik ematen ote diogu modari behar ez duen garrantzia?

Bost urte pasatu dira, nahiko gaindituta daukat Aitorren kontu hori baina ez dut inoiz ahaztuko. Orain ikastolaz ikastola joaten naiz neska-mutilekin hitz egitera, nik ez neukan informazioa ematera. Nik ez diet esaten zer egin behar duten, nik ondorioak azaltzen dizkiet, ze bide hartu beraien esku dago.

gráficas amorebieta

Hodei Ensunza Aldamizetxebarria - Batxilergoa, 2. Maila

"Iluntasun orok du argi izpi bat ezkutuan… skg".

AMAIERARIK GABEKO ERREPIDEA

Amaierarik gabeko errepidea,
estua,
iluna,
Luzea……
Han, urrunean, zerbait,
zer den ezin jakin,
ametsgaiztoaren amaiera agian,
argia,
irteera.
Pausoak gero eta arinago,
argia gero eta urrunago,
neketsuago,
eta
gero
bidea
zoramena gero eta handiago.

Denboraren orratzak aurrera,
askeak balira bezala,

beraien ezjakintasunean preso,
bidea buruz egiten,
betirako kondenatuak.

Oin biluztuak, ortozik,
Asfaltoaren gainetik,
zauriz beterik,
orbainez apaindurik.
Malkoak masailetatik behera,

t h g e
r a o t
i s r s
s e r i
t r o p
u r t e
r e o n
a

m m m m
a a a a
l l l l
k k k k
o o o o
a a a a
k k k k

lepoa geziz josirik,
barrua erretzen,
ezintasuna nagusi,
ezin, ezin,
eskurik gabeko besoek,
gezirik lepotik atera ezin.

Atzean iluntasuna,
aurpegirik gabeko mamua,
beldur guztien ispilu,
amets guztien hiltzaile,
Iluntasunetik ihes egin nahirik,
zure argiaren babesa biltau ezinik,
askea banintz bezala,
nire ezjakintasunean preso,
bidea buruz egiten,
denboraren orratzak bezala,
amaierarik gabeko errepidean,
betirako kondenaturik.

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Hodei Ensunza Aldamizetxebarria - Batxilergoa, 2. Maila

"Iluntasun orok du argi izpi bat ezkutuan… skg".

Zein atsegina den

Zein atsegina den,
olatuak, itsasoaren handitasunetik ihesi,
hondartzako haretzan babesa bilatzen ikustea
bata bestearen atzetik,
atsedenik gabe,
amaiezina den,
lasterketaren partaide.

Zein atsegina den,
bizitzaren handitasunetik ihesi,
zure besoen berotasunean babesa aurkitzea.
Egunak egunen atzetik
aitzakiarik gabe,
amaiezinak diren,
une goxoen jabe.

Zein gogorra den,
zezena, plazaren erdigunean arnasestuka,
bere orduaren zain ikustea,
Labankadak,
bata bestearen atzetik,
amaiezina den,
agoniaren eragile.

Zein gogorra den,
zu noiz helduko,
zure laztanen zain egotea.
Segunduak,
bata bestearen atzetik,
inolako presarik gabe,
amaiezina den,
bizi oso baten menpe.

Kepa Ojanguren Sagastizabal - Batxilergoa, 2. Maila

"Kuriositatea da, jakituria den paradisura hurbilarazten gaituen garraiobidea."

GERRA

GERRA, gizakiaren garraren negarra.

Bihotzaren erritmoaren konpasa
eztandek eta garrasiek
mugatzen dutenean,
erlojuek orduak markatu beharrean
segunduro arima baten azken hatsa
mugatzen dutenean,
doluaren erregina, oinazea
erreinuaren jabe da

Gorrotoa begietatik alde egin ondoren
lur suntsituan
izkutatzen denean,
itxaropena
gurpildun blindatuen etorrerarekin
agortzen denean,
desesperazioaren oihartzun nabaria

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

uhin salatarien bidez
txoko orotara garraiatzen da

Herriaren penak odolarekin
ito behar direnean,
iraganean eraikitako kimerak malkoekin
ito behar direnean,
ahaideek nekez piztutako txinparta
giza anbizioaren garrak
irensten du

Bizitza eta agonia
anai bikiak
suertatzen direnean,
gezurra eta egia
sinonimoak
bilakatzen direnean,
errealitatea deabruaren diszipulu
egiten da

Beltzez jantzitako dama
norberaren itzal kupidagabea
bihurtzen denean,
pertsona bat zifra makabro batetako
partaide klandestinoa
bihurtzen denean,
ametsak, kutsatutako
aire korronteen bufadetan
bahitzen dira

Askatasuna dama ederretik
utopia izatera
igarotzen denean,
bihotzak taupada infinituetan
herriaren intziriak
erreproduzitzen dituenean,
gizakiak gizaki
egiten dituen esentzia
bortxatzen da

Pakea era ikustezinean
barrote batzuen kaian
preso bizi denean,

soldaduek pakea hil ondoren
beldur jasangaitza
erruten dutenean,
jo-mugatzat infernua duen
tren malenkoniatsua hartzea da
salbazio zilegi bakarra

Agintarien desioak
fluxu beltzetan
murgiltzen direnean,
irrifarrak negarren
mundu tragikoan
amiltzen direnean,
intifadetako harriek
oharkabean edo ez
uso zuria akatzen dute

Maitasuna gorrotoan
eraldatzen denean,
uso zuria putrean
eraldatzen denean,
plazerra oinazean
eraldatzen denean,
begi erretinan
bizitza heriotzean
eraldatzen denean,
GERRA:
gizakiaren garraren negarra
bilakatzen da

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Kepa Ojanguren Sagastizabal - Batxilergoa, 2. maila

"Kuriositatea da, jakituria den paradisura hurbilarazten gaituen garraiobidea."

DESTINUAREN KAPRITXOAK

Bazen jada denbora mordoxka bat errutina izeneko aramu ahalguztidunak bere sarean harrapatuta ninduela; nik ordea, ezin nuen ezer egin niretzako kateak bezalakoak ziren lotura haiek apurtzeko. Garai ilun haietan, nire aspiraziorik handiena kanpoko edozein presio motatik salbu bizitzea zen baina helburu hau errealitate egitea ez zen batere erraza izango. Gurasoek, elizan kanpaiek jotzen zuten maiztasunez, egunen batean burua galduko nuela errepikatzen zidaten zeren ez nion nire lanaz aparte beste ezeri erreparatzen. Honetaz gain, nire betiko lagunentzat ere, hezur eta haragizkoa izatetik barne zirkuitoz eta kableez osatutako robota izatera igaro nintzen, lan egiteko programatua dagoen tramankulua izatera alegia. Nik ordea, ez nien nire lagunen ezta gurasoen iritziei inolako baliorik ematen, ezta begirunerik eskaintzen ere.

Nire ametsetan lana zen, urrez betetako altxorra irekitzeko giltza magikoa berak ematen baitzidan nik desiratzen nuen plazer bakarra; dirua. Diru honek era askotako mozorroak erosteko aukera ematen zidan: Armani jantzi dotoreak eta auto garestiak esaterako. Mozorro hauek ahalbidetzen zuten nik neuk berez ez nuen pertsonalitate bat eraikitzea, hau da; funtsean beharrezkoa zitzaidan barne segurtasun bat bermatzea.

1999ko gabonak iritsi zirenean aldiz, gauzak okertzen hasi ziren; nire neskalagunak (Aitziberrek) utzi egin ninduen, berari txakur bati baino begirune handiagoa zor niola aldarrikatuz. Arazo honen errotik beste arazoak jaio zirela esan daiteke. Aldi hartan, lanera joan beharrik ez neukanez egunaren hogeita lau orduak buruari bueltaka eta honi, niri gertatutakoaren erru guztia leporatzen ematen nituen. Hau dela eta, niretzat segunduak minutu bilakatzen ziren eta minutuak ordu, egunak jasanezinak eta infinituak bihurtuz. Orduan konturatu nintzen norainokoa zen nire dependentzia lanarekiko; hura zen gaitz guztietatik at mantentzen ninduen botika miragarria. Zirkunstantzi hauek apurka apurka, oharkabean ez bazen ere, amildegirantz (zulo beltzerantz) bultzatu ninduten, bitartean ni neu nire film

gráficas amorebieta

dramatikoaren ikuslea nintzelarik. Momentu mingarri haietan nire erabakia lagunengana jotzea izan zen baina hauek eskua luzatu beharrean lepoa eman zidaten. Euren ustetan, nire neskalagunarekin izan nuen jarrera krudelegia eta egoskorregia izan baitzen. Bazterketa horiek berriz ere, bultzakada bortitz bat eman zidaten abismorantz. Gurasoengana jotzea azken errekurtsoa izan zela esan daiteke baina baita ere esan behar da eurek euren haragi zatia zen semeari laguntzeari ez ziotela uko egin. Gurasoek labirintoari irteera bilatzeko fedez nire lehengusinari berri eman zioten nire egoera tamalgarriaz eta honek Gurutzeetako ospitaleko medikua zen legez, espezialista bat iradoki zien: Núñez psikologoa. Lehengusinaren esanetan, Núñez psikologoa estatuko entzutetsuenetarikoa zen eta bere metodoak berriz, iraultzaileenak.

Ni ez nintzen psikologia eta haren moduko zientzia arraroen defendatzailea. Ez nuen sinesmen askorik metodo horien eraginkortasunean are gehiago esan daiteke era bat agnostikoa nintzela gai haiekiko. Baziren urte askotxo institutuan Freud-en printzipioak irakurri genituela baina klase haien inkonprentzioa oraindik ere bizirik zegoen nire erraietan. Nire hobebeharrez gogorapen ilun haiek kanporatu egin nituen zeren banekien behar beharrezkoa nuela kanpoko laguntza, egoera hari buelta emateko.

Núñez psikologoaren kontsulta Deustun zegoen eta bertaraino heltzeko, metroaz baliatu nintzen. Metroan ni bezalako beste dozenaka oinazedun anonimo atzeman nituen euren gurutze propioa lepo gainean zeramatela. Nik haiek ez bezala, gurutzearen pisua ezin nuen apenas jaso eta banekien pisu hark ezin zuela asko iraun nire lepo gainean bestela nik ere gurutzearekin egingo nuen zorurainoko bidaia. Garraiobide jendetsu hartan, konturatu nintzen ezbairik gabe, beste oinazedunak ni baino kasta gogorragokoak zirela eta eurek bizitzari aurrez aurre begiratzen ziotela ez nire moduan ahal nuen guztietan txoko desberdinetan ezkutatuz. Horregaitik nik nuen gabezi horretaz konturatu nintzenean negarrari ekin nion, eskolara joan nahi ez duen umetxoaren gisa, pentsamendu ilunei atea irekita utziz euren ihesa ez oztopatzeko. Bizitza osoan zehar sentitu eta erakutsi nuen sendotasuna harez egindako gaztelua bezalaxe irauli zen, olatuak ur-bazterrera heltzen diren azkartasunaz.

Erabat burumakur iritsi nintzen psikologoaren kontsultara eta han, harreran zegoen andereñoak itxarongelan pixka bat itxaroteko erregutu zidan. Egongela erabat hutsik zegoen eta irudi hark aurrez aurre jo zuen nik egongela bati buruz prefabrikatuta edo prekontzebituta nuen irudiarekin: dentistaren kontsultarenarekin esaterako; jende mordoa, berbaroa, umeak euren ezinegona eta urduritasuna adierazten... Baina psikologoaren kontsulta hura guztiz mortua zen, bertan ez zegoen aldizkaririk ezta ere inolako apaingarririk. Zirkunstantzi hark bertan itxaroten zuten gaixoek inolako luxurik merezi ez zutela hausnartzera bultzatu ninduen, are gehiago, apalkuntza era subliminal bat ere izan zitekeela pentsatu nuen. Leku klaustrofobiko hartan nire zentzumenek atzeman zuten bakarra Beethoven-en 9.sinfonia izan zen, bozgorailuetatik oso era lotsatian irteten zelarik. Instante hartararte nire musikarik kuttunena izan zena (Kubrick-en "La Naranja Mecánica" filmean agertzen zelako) drastikoki nire

gráficas amorebieta

musikarik gorrotatuena bihurtu zen egoerak horretara bultzatu zuelako. Honela, nire pentsamenduetan murgilduta nenbilela, jaso nuen psikologoaren bulegora igarotzeko deia.

Gizon hark sorrarazi zidan lehen irudipena oso ona izan zen, gehienbat, seriotasuna nabaritu niolako eta niretzat dohai hura oso garrantzitsua zen neukan egoera tamalgarria ikusita edota baita ere, garai haietan niretzako beltza ez zen guztia zuria zelako. Lehenik eta behin, aurkeztu egin zitzaidan eta geroxeago psikologiaren definizio zehatz bat eman zidan non zientziaren nondik norakoak ederki sintetizatzen zituen. Berak esan zidanaren arabera, definizioa ematearen helbururik nagusiena gaixoari beldurra kentzea zen zeren pertsonak hitz hura entzuterakoan asko aztoratzen ziren. Núñezen esanetan, psikologiarekiko beldurren iturburua komunikabideen manipulazioa izan zen zeren bere ustetan komunikabideentzako egiak ez zuen ikuslerik erakartzen morboak bai ordea. Hasiera itxaropentsu honen ostean berriz, hasi zen gurutzbidea. Núñez jaunak ume bat bezala tratatzen ninduen, etengabe galdera inozoak eta sarri askotan berdinak errepikatuz. Kontsultaren bigarren zatian aldiz, irudi abstraktu batzuk erakutsi zizkidan eta jarraian galdetu zidan ea zer iradokitzen zidaten. Eszena haiek ezagunak zitzaizkidan, hainbat eta hainbat film txarretan ikusiak bainituen baina euren protagonista izatea latza zen zinez. Nik euretan ez nuen zertzelada bitxi batzuez gain ezer zentzuzkorik ikusten baina berak grina handiz inposatzen zidan presioaren ondorioz erantzun behartuak ematera behartzen ninduen behin eta berriro. Ordubete hura amaitu zenean, mende oso bat iraun zuena, hurrengo astean itzultzeko aholkua eman zidan; hurrengo aldi hartan plazaratuko zizkidala berak ateratako konklusioak.

Kalera irtendakoan, parke batean eseri nintzen eta nire aurrean maitekiro jolasten ari zen familia bati erreparatu nion. Euren aurpegietan ikusi nituen islatuta nire hutsune eta gabezi guztiak. Zoriontasuna eta konfidantza transmititzen zuten kezkei eta inzertidunbreari harresi zeharkaezina eraikiz. Pozik ari ziren jolasean eta nik orduan, burura ekarri nuen hainbatetan neskalagunak eta nik eraiki genuen etorkizunerako bozeto itxaropentsua eta bat batean nola desagertzen zen zeruak eta lurrak bat egiten zuten lekutik, horizontetik. Zoriontasunaren handitasunaren dimentsioaz eta balioaz jabetzea lortu nuen momentu hartan, zuen balioa bihotzean sentituz. Berehalaxe nire malkoek hainbatetan bidelagun fidel izan nituen zapatak (hainbat arrapalada eta ibilaldi luze burutzeko erabili nituenak) nola bustitzen zituzten ikusi nuen, malkook lehortzeko erabat indarge. Segundo amaigabe haietan, malkoen gardentasunean nire bihotzaren azken urteotako fotogramak ikusiaz nire filma pertsonal eta tristea erreproduzitu zitzaidan burmuinaren osotasunean. Filmak begiak ireki zizkidan eta azken urteotan bizi izandako lainotik jeitsiarazi zidan hainbat urtetako itsutasunaz konturatuaraziz. “Maite” nitueenei egindako hainbat eta hainbat kaltez jabetutakoan, era mingarrian pairatu nituen minok nire haragietan. Era berean, nire buruaren barreneraino iritsi ziren gurasoen eta neskalagunaren negarren oihartzunik ozenenak, samingarrienak.

Penak ahazteko Deustutik Bilbo erdialdera heltzen zen Abandoibarrako etorbidea hartu nuen. Bertan, nire miseriak desagertu beharrean areagotu egin ziren zeren kalea bakardade igorle bikaina dela jabetu nintzen eta honek munduan erabat bakarrik nengoela gogorarazi zidan. Nire gurasoak hor zeuden baina banekien mesede bat egiteko eta kunplitzeko lagundu

gráficas amorebieta

zidatela (bestela zer esango lukete auzoko mingain krudelek) zeren eurentzat nik ez nuen jada inongo garrantzirik. Oinaze hartan murgilduta ez nuen inondik inora lurrik begiztatzen eta banekien ezin nuela denbora askoz gehiago iraun ozeano bakarti eta ilun hartan kanpoko txaluparik jaso gabe, etorkizunaren seinalerik, printzarik gabe. Modu beretsuan, banekien ni egoera hartan aurkitzearen arduradun bakarra ni nintzela; orduan, bakoitzak berak ereindakoaren uzta batzen duela, zioen esaera-zahar eta betiere jakintsua aplikatu nion nire buruari. Ibilaldi hartan astiro-astiro nindoala, gauak irentsi ninduen bere osotasunean eta izarrek euren konpainia eskeini zidaten baina eskaintza hau ez zen nahikoa izan pairatzen ari nintzen saminezko mozkorra baretzeko.

Naufragio tragiko hartan (naufragio epikoen inolako inbidiarik ez zuen hartan) noraezean ari nintzela jabetu nintzen ekaitzak ez ziola bareari inolako zirrikiturik utziko eta ustekabean, nire atzean, ordurarte inoiz sentitu ez nuen presentzia bitxi bat somatu nuen. Gorputza jiratu nuenean ez nuen inortxo ere ikusi baina bai barruntatu nuen arima baten presentzia. Arima honek ez zuen gorputzik begibistan baina bai itzala zeina gainera oso handia zen; etorbideko farolek hala salatzen zuten behintzat. Nik beldurrez itsututa zer nahi zuen galdetu nion eta berak ez zuen ezer erantzun. Jarraian, bere presentziaren intentsitate maila proportzionalki igotzen hasi zela ohartu nintzen. Bapatean, ahots urrun eta lehor batek ebaki zuen nire arimaren hats jarraitua. Ez zen inor ageri Nerbioi ibaiaren alde hartan eta hitz haien jabegoa arima moduan identifikatu nuen zer hari egotzi nion. Arimak berarekin eraman behar ninduela esan zidan baina nik R.I.P. taldearen letreei lehialtasuna erakutsiz ez nengoela horretarako prest erantzun nion. Heriotzaren arimak, honela identifikatu zen presentziak, berarentzako ez zegoela galtzeko inongo abagunerik itaundu zidan zeren ekidigarria ez zen gauza bakarra munduan, noiz edo noiz heriotzaren besoetan erortzea zen. Ondorioz, arimak bere nahia lortzeko asmotan ni konbentzitzea erabaki zuen eta horretarako iraganean egin nituen oker guztiak errezitatu zizkidan hitzez hitz. Diskurtso biografiko hark erabat txundituta utzi ninduen konturatu bainintzen arima hura orojakilea zela . Nire okerrak entzun nituenean eta nire sentsibilitatearen erruz erabat behera etorri nintzen, nire defentsarik sutsuena malkoak jaurtikitzea izan zen. Itxaron zitekeen moduan, heriotzaren izenean hitz egiten zuen arima ez zen kokildu eta ni konbentzitzeari ihardetsi zion berriro, nik munduan ez nuela inolako funtzio baliogarririk egiten eta sortzen nuen gauza bakarra gorrotoa eta tristezia zela aldarrikatuz. Afirmazio hark gizartearen barruan burutzen nuen jardunaz hausnarrarazi zidan eta konturatu nintzen heriotzaren arimak arrazoi osoa zuela. Ustekabean umetan (katekesian) inozentziaren larreetan igerian nenbilela, ikasitako David eta Goliath-en kontakizun biblikoa etorri zitzaidan burura itxaropenaren txinparta piztuz baina segituan errealitatearen munstroak hura utopia lor ezina zela adierazi zidan kupidagabe.

Azkenean, nire gorputza heriotzaren arimari eskaintzea erabaki nuen erabat etsituta eta oinazearen soka lepotik zintzilik nuelarik. Momentu hartan ordea, nire atzekaldetik zetorren ahots ezti eta oso ezagun bat atzeman nuen, nire neskalagun ohiarena, Aitziberrena, alegia.

gráficas amorebieta

Bere etorrerak, heriotzaren desagerpena bultzarazi zuen zeren hiltzera ez zihoan gizakiak ezin zuen heriotzaren errepresentazio lurtarrik atzeman eta neskalaguna eta biok besarkada esanguratsu baten bitartez fusionatu ginen, denbora asko itzalirik zeraman maitasun garra sutsuki berpiztuz. Hainbat denboraz deseginda egon zen puzzlea berreraikita ikusteak malkoak atera zizkidan oraingo honetan berriz ez ziren gaziak (saminezkoak) baizik eta gozoak (atseginezkoak).

Orain esan dezaket patuarengan sinisten dudala zeren berak agerrarazi zuen Aitziber infernurantz zihoan taxistaren eskaintza etsia onartzera nioan instante berean. Zorionez, neskalagunak nik luzatu diodan barkamena onartu dit eta honek aspaldi itxiak nituen ateak ireki dizkit. Bizitzak behintzat, behar beharrezkoa dena baloratzen irakatsi dit, buruan esperientzia latzgarri baten ohiartzun ahaztezina utzi badit ere.

gráficas amorebieta

Aitziber Erkiaga - Batxilergoa, 2. maila

"Euskal dantzak asko gustatzen zaizkit. Ilusioz nago Unibertsitatera joateko".

HARRI BEREAN BI BIDER ESTROPOZU

Bazetorren eguna! Gero eta egun gutxiago falta zitzaizkidan egutegiko 19 zenbakia borobil gorri batez margotzeko. Bazetorren bai, hiru hilabete esperoan eman ondoren berriz nire maitea ikusiko nuen eguna.

Denbora tarte hura oso luze eta amaigabea zen. Orduak egunak izango balira bezala iruditzen zitzaizkidan eta egunak berriz, hilabeteak izango balira bezala. Tarte hartan elkarrekin bizi izandako une goxoak bakarrik nituen gogo eta begien aurrean. Ez nuen beste ezertan pentsatzen. Goizean jaiki eta gauean lo hartu arte ez nuen beste gogoetarik, gure bion artekoa.

Udaberri garaia zen elkar ezagutu genuenean. Zelaietan loreak berpizten hasiak ziren, eguzkiak bere indarra berreskuratzen hasia zen, animaliak beraien gordelekutik irteten zihoazen, txoriak kantari zebiltzan zeru urdinean zehar,... Beste giro bat antzematen zen neguko egun goibel, ilun, hotz,... horiek bazter batetan ahaztuta. Naturak beste kolore eta itxura alaiago bat isladatzen zuen.

Giro alai, argi, zoriontsu, librea,... inguruan antzemateaz gain nire barnean ere antzematen hasia nintzen. Hasieran ez nuen ezer ere ulertzen. Ez nuen arrazoirik horrela sentitzeko, nire

gráficas amorebieta

bizitzak monotonia zeramalako barnean. Horregatik harritu nintzen. Nola zen posible hain zoriontsu eta hain libre sentitzea? Ez nion galdera honi erantzunik aurkitzen, nire barneko txoko guztiak arakatu arren. Hego haizearen eragina izango zen behar bada. Baina ez! Aurkitu nuen erantzuna. Arrazoia ez zen izan hego haizea edo udaberriko giroa, larunbat gau batetan ezagutu nuen mutila baizik. Kosta zitzaidan! Gure bion arteko topaketa era arrunt bat izan arren erabat berezia izan zen eta.

Larunbat gauetako zirkuituari jarraituz lagunekin parrandan atera nintzen. Zerbait hartzeko eta dantza pixka bat egiteko asmoz taberna batetara hurbildu ginen. Dena zihoan beti legez: taberna batetan sartu, trago bat hartu, dantzan egin, berriketan aritu,... Barrara hurbildu eta zerbitzaria noiz etorriko zain nengoen. Zerbitzariari deitu eta eskatzera nindoala hara non nire albokoak eta nik gauza berbera eskatzen genion biok aho batez. Elkarri begiratu eta hirurok hasi ginen barre algaraka: zerbitzaria, ni eta Liert, honela baitu izena nire maiteak. Hura izan zen gure bion arteko harreman sutsuari hasiera eman zion gertaera. Berriketan hasi eta ez ginen isildu bakoitzak bere etxera joateko bideari ekin zion arte.

Asteak joan eta asteak etorri ahala gure arteko harremana sendotzen joan zen eta azkenean gertatu beharrekoa gertatu zen. Bata besteaz maitemindu zen eta honela eman genion hasiera ziklo barri bati.

Jadanik, neguan babestuta neukan sugarra piztu zitzaidan berriro. Bere gotorlekutik aterata zegoen negua alde batera utzita. Gainean zeukan mantarra kendua zuen eta berriro bere onera bueltatuta dantzari zebilen nire baitatik. Beraz, prest nengoen bizitza berri bati eusteko, nire betiko monotonia bazter batean laga eta aparkatuta utzita, kotxe zahar bat izango balitz bezala.

Udaberriak bere azken egunak zituen gure artean. Dena lehenengo egunean bezala jarraitzen zuen, beno hobeto esateko: egunetik egunera gure arteko maitasuna suspertzen zihoan. Egutegiko orriari buelta eman ondoren uda iritsi zen.

Uda, lau urtaroetatik bero eta lehorrena. Uda garaia, pikondoei kimuak berritzen eta hostoak zabaltzen hasten zaizkienean. Orain, egun osoa genuen guretzat. Bukatu genituen klaserako joan-etorriak, bukatuak ziren buruhausteak.

Beste giro bat antzematen zen nonahi. Ingurura begiratu eta denetan aurkitzen zenuen irria marrazki. Dena kolore alaiz horniturik zegoen, bistan zegoen alaitasunaren eta zoriontasunaren urtaroa hasia zela. Eta noski, nola ez! Gu bion aurpegietan ez zen beste irudirik azaltzen. Belarritik belarrirako irria eta begiak dir-dir distiraz beteak. Udaren gozotasuna eta berak eskaintzen zuen guztia probatzeko irrikaz. Eguzkiak irten bezain laster jantzi bikinia, jarri motxila: toaila, eguzkitako krema,... –ekin eta prest hondartzara abiatzeko. Hura zen nolabait esateko gure maitasunaren habia. Toailan ematen ez genuen denbora uretan murgildurik ematen

gráficas amorebieta

genuen edo bestela txiringitoko mahai batetan eserita zerbait hartzen. Honela ematen genuen eguna eta gaua aldiz, festarik festa.

Lagunak orain arte oso gutxi aipatu baditut ere ez pentsa inondik inora ere ahaztuak nituenik. Hauek ere nire bizitzaren parte ziren eta beraiekin igarotzen nituen zenbait arratsalde edo festaz festa.

Nolanahi ere uda hura lagunekin bizitzeaz aparte beste norbait nuen urtaro hura bizitzeko, Liert. Joaten ginen tokira joan edo egiten genuena egin, beti uzten genuen gure maitasunaren esentzia edonon.

Uda ahaztu ezinezko aldia izan zen. Baina bakoitzak bere epea du eta uda ere bazihoan. Udazkena zetorren, lehenera bueltatzeko garaia. Orain zetorren txarrena! Banatu beharra genuen, bera Bartzelonara gustuko zuen karrera ikastera eta ni hemen, 1.Batxilergoa pasatu ostean 2.Batxilergoari aurre egiteko asmoz.

Irailaren erdia iristearekin batera agur esateko ordua iritsi zen Gabonetara arte. Oso gogorra izan zen baina elkarrenganako genuen maitasunak distantzia guztiak labur uzten zituenez, ez genuela txarrena pentsatuko esan genion elkarri. Usoa aireportuaren erdian usapalak ematen genuen elkarri gogor estutuz musu goxo eta sakon bat emanez elkarri, gurea bertan bukatuko balitz bezala. Agurtu eta egunero hots egingo geniola elkarri promesa egin genuen.

Astuna izan zen banatuta egon ginen hiru hilabete horiek. Egunero institutura joan aurretik egutegiko egun bat beltzez margotzen nuen, nire baitan:

- Egun bat gutxiago falta zaizu- esanez.

Leihotik begiratu eta hostoak nola erortzen ziren begiratzen nuen. Zuhaitzak biluzik geratzen hasiak ziren eta ni neu ere biluzik sentitzen nintzen, nire arropa Liert izango balitz bezala sentituz.

Iritsi zen eguna! Abenduaren 19a. Goizean goiz jaiki eta lehenengoko gauza 19 zenbakia borobil gorri batez margotzea izan zen.

Taxia hartu eta aireportura joan nintzen bere bila. Azkenean, iritsia zen eguna. Berriro bere musuak, laztan goxo eta eztiak, bere hitzak,... jasoko nituen, denak nituen gogoan bidean. Han nengoen noiz etorriko zain. Halako batean ateak ireki eta han agertu zen beste neska batekin. Bere ikaskideren bat izango zela pentsatu nuen lehenago ere esan zidalako hemengo batzuk zeudela bertan. Biak niregana hurbildu eta Liert-en gainera jausi egin nuen nire besoez bera oso-osorik harrapatzeko eta estutzeko asmoz. Baina bere erantzuna desberdina izan zen, oso hotz jokatu zuen, harrera hotza eskaini zidan.

gráficas amorebieta

Ez nuen ezer ulertzen, gure maitasuna mendiaren muinean zegoen eta nola zen posible hain zakar eta hotz jokatzea? Etxerako bidea isila izan zen. Hirurak elkarri agurtu eta bakoitzak bere bidea hartu zuen.

Hurrengo egunean mugikorrera hots egiten ari nintzaion baina ez zidan hartzen. Txarrena pentsatzen hasia nengoen, nire pentsamenduetan murgildurik nenbilen. Azkenean mezu bat mugikorrean:

Hitz egin beharra dugu, 5tan betiko tokian

Bertara hurbildu eta han zegoen zain. Ezer esan aurretik bera hasi zen hizketan. Zer esango eta neska hura bere neska-laguna zela aitortu zidan. Orduan ni zer nintzen? Ez nekien nora jo, zer egin, mundua gainera zetorkidan.

Etxera ihes egin nuen negar zotinka. Ez nuen inorekin topo egin nahi, bakarrik egon nahi nuen, bakardadea baita momentu hauetan lagunik minena. Hiru hilabete hauetan panpin bat banintz bezala erabili ninduela ohartu nintzen. Momentu hartan txarrena oparo nion. Dena ilun ikusten nuen, goibel, hutsik sentitzen nintzen. Gainera Gabonak heltzear zeuden eta egun haiek famili eta lagunartean bizitzeko egun zoriontsuak ziren. Zoriontsu nola? Zer neukan zoriontsu egoteko? Ezer ere ez! Bakarrik nahigabea, gorrotoa, bakardadea,... nituen lagun.

Gabon Zahar gaua ere iritsi zen. Ez nuen atera nahi, nahiago nuen famili artean geratu beraien kontuak eta barreak entzuten, nire aurpegian barrea ateratzea oso zaila bazen ere. Azkenean lagunek atera ninduten beraiek ere txarto sentitzen zirela ni horrela ikusita esanez.

Taberna batetan sartu, barrara hurbildu eta:
- Kalimotxo bat.

Hara, berriro gertakizun bera. Eskuinera begiratu eta nor ikusi behar, Liert. Izugarrizko amorrua sentitu nuen, berak ere antzeman zuen oso nabaria baitzen nire aurpegiko isladapena.

Begietara begiratu eta lepoa eman nion. Bat batean, hotzikara batek gorputz osoa astindu zidan, nire gerria bi eskuz bildua zegoen. Gora begiratu eta han zegoen nire atzean niri heldurik. Momentu hartan udako oroitzapenak pasatu ziren nire begi aurretik, nahigabea erabat joana nuen, poza sentitzen nuen, nire bihotza 100 taupadara zihoan. Buelta eman eta berarekin joateko eskatu zidan.

Bihotzaren nahiek bultzatuta, maitasunean bihotzak agintzen duelako eta ez buruak, berarekin joan nintzen lagunek jarritako oztopo guztiak gainditu ondoren.

Musuak, besarkadak, ukipenak, laztanak,... izan ziren gau hura labur eta zoragarri bihurtu zutenak. Eguzkiaren argitasunarekin esnatu ginen, elkarren ondoan geunden, elkarri itsatsita.

gráficas amorebieta

Jantzi eta elkar agurtzera gindoazela gau hartakoa ahaztea eskatu zidan, orain neska hura zegoela bere bihotzean adieraziz.

Amorruz josi nintzen, izugarrizko zaplastekoa emateko gogoa etorri zitzaidan. Gori-gori neukan odola izoztua geratu zen. Erabilia sentitzen nintzen, gau hartakoa ahazteko, nola zen posible? Nazkagarria, higuingarria,... ez zuen hitz goxorik merezi. Lonjako ateari danbatekoa emanez alde egin nuen.

Askotan pentsa izan dut: lagunei kasu egin banien... Baina egindakoa eginda dago eta ez dago atzera bueltarik. Orain hemen nago logelan, ohe gainean eserita, gertatutako guztia eguneroko honetan idazten. Beste desiorik ez dut: hemen idatzitako sentimendu, gertaera,... oroitzapen on zein txar guztiak egunerokoa ixtean berarekin ixtea eta ez nire oroimenean geratzea. Atsekabeturik, nahigabeturik, triste, ezertarako gogorik gabe,... sentitzen naiz. Dena ilun dago niretzat, ez dut argitasunaren isladapenik aurkitzen eta honela ezin dut zoriontasunerako bidea aurkitu. Espero dut denbora gutxi barru dena ahaztuta edukitzea eta beste bizimodu hobeago bati ekitea. Bitartean lagunen konpainia eta aholkuak jarraituko ditut, hauek inoiz ere ez dutelako bat alde batera uzten.

gráficas amorebieta

Gorka Alzola Arrien - Batxilergoa, 2. maila

" Zauri ezkutuak arriskutsuenak dira."

HERIOTZAREN AURPEGIA

Negua zen, hamarretan gelditu ginen zinemara joateko eta hantxe nengoen ni, punttu-punttuan, hiria bitan banatzen duen adreilu gorrizko zubiaren gainean. Egun hartan, gizonezkoei gustagarri zaizkigula esaten diguten akziozko pelikula horietako bat ikustea erabaki genuen; beraz, itxaroteak merezi zuen.

Ez zebilen inor kalean eta horrexegatik edo, ozen-ozen entzuten zen urak zubiari eusten dion paretaren aurka hartutako eraso amorrazioz betea. Noizbehinka, zubiaren arkuetariko bat etxolatzat hartu bide zuen herriaren baten kantu leun eta urrunekoa entzuten zen, gauari misterio gehiago eskaintzen ziona eta, halaber, maitagarriagoa bilakatzen zuena. Ibaiko uraren gainean laino zuri-zuria pausatzen zen, elurra ekartzen baitzuen. Ez zen zubiaz bestaldeko auzo umiletik deiadarrik entzuten. Etxeetan baimenik gabe sartutako hotzak, egunez kalean barrena hedatzen zen algara mututu egin zuela esan zitekeen.

Zubiaren hasierako farola itzali egin zen, hotzak arnasa moztu balio bezala hari ere. Maitane, ohi bezala, berandu zebilen.

- Ez nekien zer jantzi! Barkatu!

gráficas amorebieta

Huraxe izango zen haren argumentua, filma hasteko minutu eskas falta zela, puntuan heltzeko sekulako ahaleginak egin zituelako itxura eskaini nahian, arnasestuka agertzen zenean. Eta gona labur- labur batekin azalduko zen, gau guztia dardarka pasatzeko itxuran eta, nahi gabe eskatzen duenaren antzera, isilean txori babesgabe baten antzera, nire jertsea erregutzeko.

Zubia eder eta luze begiztatzen zen gaueko ordu bakarti haietan; batez ere luze, hiriaren bi aldeak ezkon ezinak zirela aditzera emateraino.

Gauaren isilean, zubiaren alde bateko argi motelak eta besteko distiratsuak ezberdin susmatzen nituela, ibaiaren gainera soinean eramaten dugun zementu, adreilu zein burdinazko egitura batek ea zer nolako eskubidea duen galdetzea bururatu zitzaidan, mundu ezberdin bi betiko batzeko edo bereizteko. Hiri guztietako zubiek munduaren alde aberatsa edo berria eta parte zaharra edo txiroa lotzen baitituzte.

Pentsamenduotan nenbilela, zubiaz bestaldetik eta aurreko espaloian, gizaki handi bat ikusi nuen, zebrabidea zeharkatzeko asmoz. Gizonezkoaren tankera hartu nion, soineko ilunetan bildua. Hotzak zetorren zalantzarik gabe, lepoa berokian babestuta. Zubi erdira heltzeaz batera, gelditu egin zen. Ikusi egin ninduela antzeman nion. Ez zuela inor espero eta ikusi egin ninduela. Bakarrik egoteko asmoz zubirantz zetorrela zirudien, beste inoren presentziarik gabe gauaz edo bakardadeaz gozatzera. Zubia gurutzatzeko keinua egin zuen azkenik, bi aldiz pentsatu ondoren, eta zuzenean niregana hurbildu zen, ahotik hatsa zeriola.

- Surik bai? - galdetu zidan aurpegia ia ikusten ez zitzaiola.

Zigarroa eraman zuen ezpainetara eta niri sua eskaintzea egokitu zitzaidan. Ez zidan beldurrik antzeman, neure eskuetako dardara hotzari atxiki erraza zitzaiolako.

- Neskaren zain, ezta? - esan zidan ondotik, metxeroaren suarekin aurpegia ikustea lortu nionean.

- Neu ere bai! Beti nesken zain! Hau bizitza! Gona bat ala bestea zein jantzi erabakitzeko hartzen duten denbora, denbora da!

Ez nion ezer esan, nire isiltasunak arrazoia eman zion arren.

Aurpegia handia zuen gizonezkoak, ezpain lodiak, begi itzalak. Ile ederra baina gaizki moztua. Oinak berotu alde espaloiaren aurka zapatak astintzen hasi zenean, galtzerdi zuriak ikusi ahal izan nizkion eta haien koloreak, gizonaren jatorriari buruz zubiaz bestaldekoa behar zuela seguraski eman zidan aditzera. Neska ere hala izango zuela ondorioztatu nuen.

- Zubi hau nire etxea bezala hartzen dut! - segitu zuen ezezagunak. Hementxe elkartu bainintzen lehenengoz nire neska-lagunarekin...

gráficas amorebieta

Esaldi harekin, nirekin bat egitea lortu zuen guztiz, nik ere zubiarekiko sentipen huraxe bera bainuen, zubia ene etxea bezala nuela, alegia.

Gizona kopeta beltza jartzen hasi zen. Gaizkile itxura hartu nion.

- Bizitza bidegabea da oso! - aitortzen hasi zitzaidan. Eta berehala azalduko dizut zergatik: Kontrakorik uste baldin baduzu ere, zubiaz bestaldean bizitzeak desabantailak besterik ez ditu. Ulertzen? Lana aurkitu artean adarrak apurtzen dituzu, gizon itxura hartzen urteak doazkizu, neska-lagunari etxetxo baten babesa eskaini orduko nekeak jota zaude, eta gutxieneko ziurtasuna lortzen duzunean, zer? Neska-lagunak beste batekin doala esaten dizula!

- Zorte txarra!- atera zitzaidan.

- Baita zera ere, zorte txarra! - bizitu zen ezezaguna-. Ume moko horietako batengatik uzten zaituenean... hori ez da zorte txarra, alukeria galanta baizik! Gauzei behar duten izena eman diezaiegun!

- Denbora asko al da zure neska-lagunarekin zabiltzala? - galdetu zidan, ideia finkokoa zirudien hark.

Galdera nahiko pertsonala iruditu zitzaidan eta aurpegian ere nolabait harritu egin ninduelako itxura jarri nion nonbait, kolpean isildu baitzen eta eskua ahora eraman, esan berri zuenari jaramonik ez egiteko adierazi nahian.

- Nik neurearekin gaur bukatu behar dut!-esan zuen doinu triste batez. Lehen zera esan nahi nizun: zure kontura bizitzen jartzen direla, nahikeria guztiak betez, musu ziztrin batekin gure aurpegi zuria bereganatuz...eta gero zer? Poltsikoa bete diru duen batekin oheratzeko! Eta okerrena ez da hori! Maite nauela esaten jarraitzen duela baizik! Zuk ba al duzu hori ulertzerik?

- Ez nion erantzun.

- Nik ez! - lehor batez isildu zen.

Ezezagunak erabakia hartua zuen itxuraz. Gau hartan bertan amaitu beharra zuela konbentzituta zegoela eman zidan aditzera. Bestela, neska-lagunak burutik behera kaka egiten ziolako sentipenaz jarraituko zuela eta, horretarako, nahiago zuela maitasunik gabe bizi, iseka egiten zion neska txatxu haren aurpegi nazkagarria ikusten jarraitzea baino.

Ezezagunak eraso egingo zidala iruditu zitzaidan une batez. Baina gero, espaloian behera jarraitu zuen, harik eta zubiaz bestaldeko farolaren azpian kokatu zen arte.

Bost minutu falta ziren zinemarako orduak Maitane harrapatzeko. Harrezkero, eskaileretan behera behar zuela imajinatu nuen.

gráficas amorebieta

-Badator! - amorruz betetako deiadarra egin zuen ezezagunak eta espaloian gora egin zuen ero baten gisa, bere helburuaren bila.

Gona motz batekin hankak bizkor-bizkor luzatzen zituen emakume bat sumatu ahal izan nuen zubi sarreran. Eta neu ere, mesfidantzazko haize batek bultzatuta, ezezagunaren atzetik abiatu nintzen, ez dakit zerk bultzatua.

Gizonak erdi bidean gelditu zuen emakumea. Elkar ondo ezagutzen zutelako itxura agertu zuten. Hiruzpalau hitz gurutzatu zituzten. Besterik egiteko baino azkarrago, ezezagunak emakumeari besondotik helduz, poltsikotik labana distiratsu bat atera eta sabel erdi-erdian barneratu zion.

Ez nuen mugitzekorik egin. Arnasa moztu zitzaidan. Hotz. Mutu.

Sabeletik behera bultzatu zuenean eta elurra zirudien lainoak emakumearen gorpua irentsi aurretik. Maitaneren aurpegia ikusi ahal izan nuen segundo erdiz, ezezagunaren esku artetik irristatzen.

gráficas amorebieta

Elixabet Alegria - Batxilergoa, 2. maila

"Animaliak gustatzen zaizkit. Euskal musika entzutea gogoko dut. Pertsona alaia eta nire lagunen laguna sentitzen naiz."

OROITZAPENETAN GOXO-GOXO

Leihoko zirrikituetatik, egunaren lehenengo argi-izpiak sartzen ari dira, logela hotz eta ilunera, zerbait ikustea ahalbidetzen dutenak. Logelak ez dauka sabai laua, etxearen teilatuak duen inklinazioaren araberakoa baino. Hezetasunak eragindako orban beltzak ageri dira leiho ondoan. Logela txikia da, eta bertan ez dira gauza asko ageri, armairu eta ohe txiki bat bakarrik. Armairua ate astunaren ondoan kokatuta dago, altzari zaharra izanik, agerian dauka denboraren joana. Ateetako bat hautsita ageri da, eta sitsak egindako lan trebearen ondorioz, zulo txikiz jositako artelana dirudi. Metro eta erdiko alderik gabe, ohe estu eta txiki bat ageri da, alde batetik dindilizka, izara eta ohe-gain gorrixka dituena. Izara, erabiliaren erabiliaz horituta eta gastatuta ageri da, norbaitek jositako urratuak ere ikusten direlarik. Burko gisa, oilo lumaz betetako zaku marroi latza ikus daiteke. Izara artean dagoen gaztearen zurrungak, sendo eta indartsu entzuten dira gelaren barrenean, bere lo sakonaren adierazle.

-Antxon, Antxon!! Jaiki! -amak deiadar semeari.

-Bai ama, oraintxe!! –erantzun semeak-. Antxon, ohean goxo-goxo egon den arren, egunero bezala, amak sukaldetik egindako deiak esnatu du. Gaur arin esnatu da, beste egun batzuetan, ordea, lo sakonean murgilduta dagoenetan, erratzaren kirtenarekin jo behar izaten du amak sukaldeko sabaia, semea esnatzeko. Antxon, sei eta erdiak inguruan esnatzen duen arren, bere

gráficas amorebieta

ama, Mirentxu, oilar gorriak egiten duen kukurrukuarekin jaikitzen da, eta semea esnatu bitartean, beheko sua pizten du gosaria prestatzeko, eta baita labea ere, ogia eta taloa egiteko.

Antxonek, goizero legez, erdi lo jaisten ditu baserriko eskailerak, kandela eskuetan duela, bere abarketa hotsa ozen entzuten da zoruan, arineketan zeregin asko dituelako egiteko. Lehenik, eguna ondo hasteko, amak prestatutako katilukada betea jaten du, aurreko egunean soberan gelditutako ogia eta esnerekin edo bestela, arto-irinaren egindako morokila. Bapo-bapo jan ostean, lanari gogor ekin beharra dago, lehenik, ikuiluko animaliei satsak atera, ondoren jaten eman eta azkenik esnea eraitsi.

Gaur, errotara joatea du zereginetako bat Antxonek, astoa ikuilutik atera eta bere gainean arto eta gari zorroak hartu eta bertarantz abiatu da. Basoz-baso eginbeharreko bidea du aurretik. Errota, lau kilometro ingurura dago, erreka bazter batean kokatuta, joaneko bidea erraz egitekoa da, itzulerakoa, ordea, nekeza da, aldats gora delako. Gainera, astoari nekea laster nabaritzen zaio, hark ere lan asko egin behar izaten duelako egunean zehar. Animaliak bere gogo eza laster adierazten du, belarriak jaitsi, eta aharrantzaka hasten denean. Haren aharrantzek, pertsona gortzeko moduko zarata egiten dute. Ahoa zabal-zabalik jarri eta bere hagin handi eta horiak ikusgai dituela, geldi jarri eta aharrantza ozenak egiteari ekiten dio.

Antxon, pozik doa basoko bidean zehar, txistua joaz, baina, halako batean, aldatz- behera batean, astoak basatzan hankak sartu, eta zorroak buru gainetik behera bota ditu. Antxon, ezustean harrapatu du gertatutakoak, eta bera ere alborantz jausi da. Astoa, gertatutakoaren errudun izan den arren, bera da zutik gelditu den bakarra, Antxon eta zorroak, bitartetan basatzan igerian ari direlarik. Gaztea, sutan altxatu da behetik, goitik behera basaz beteta dagoelarik. Berriz ere, zorroak asto gainean jarri eta jarraitu du errotarako bidea. Errota, erreka baten bazterrean kokatuta dagoen baserri bat da. Umore txarrez, baina heldu da bertara azkenean. Baserriko atea jo du eta itxaroten dagoen bitartean ingururantz begiratu eta, ondoko baserriko leihoan neskatxa bat leiho azpitik barreka daukala konturatu da. Antxon, burua bueltatu eta gorri-gorri eginda astoa madarikatzen hasi da, bere erruz dituelako itxura haiek.

Errotako eginbeharra beteta, hamabiak aldera itzuli da etxera, zorroak irinez gainezka dituela. Ondoren, uraren bila joatea du beste eginbeharretako bat. Auzoan dago ur-putzua, eta bertatik edo bestela errekatik ekarri behar izaten dute ura, bai etxeko zereginetarako baita animalientzako ere. Horretarako, idi parea uztarriarekin lotu eta atzeko egurrezko gurditxoaren gainean hiru kupel harturik uraren bila abiatu da.

Ama, bitartean, etxe azpiko errekatxoan dago arropak garbitzen, bertako lana bukatu ostean, burua oihal lodi batez bildu, haren gainean arropaz betetako ontzia jarri eta etxerantz abiatu da arropak esekitzera. Etxera iristean, astoa etxe aurreko zuhaitzari lotuta ikusi duenean lasai gelditu da semea bueltatu delako.

Hainbat lan egin ostean, Antxon, gosez tripak zarataka dituela sartu da sukaldean, ama agurtu eta mahaian eseri da berehala. Sukaldeko usain goxoak, jateko gogoa gehiago piztu

gráficas amorebieta

dio oraindik gazteari. Amak beheko suteko laratzetik zintzilik dagoen lapikoa hartu eta mahai gainean jarri du, semeak, labetik atera berri duen ogia zatitzen duen bitartean. Halako batean, amak semea basaz zikinduta ikustean estutu egin da, baina gertatutakoa kontatu eta onik dagoela ziurtatzean, algara ederrak egin ditu, bere begiak txiki-txiki eginik eta ahoa zabaltzerakoan bere hagin txikiak ikusgai uzten zituen bitartean. Lokatz artean egindako igerialdiaren gainean barre gustura egin ostean, jateari ekitea erabaki dute, hoztu baino lehen. Etxeko indaba gorriak dauzkate bazkaltzeko, txerriaren txorizo mutur batekin, eta amaitzeko sagar gorri bana.

Aitaren hutsunea asko nabaritzen dute ama semeek, orain bi urte utzi zituen azken latz eta gogor batekin. Negu hotza izan zen bere heriotzaren erantzulea, negu gogor eta iluna hain zuzen. Hezurretaraino sartzeko moduko hotza egiten zuen urte hartan, hala ere, eguraldi ona zein txarra izan, eginbeharrak egin beharra zegoen, eta kementsu, horretan saiatzen zen Antxonen aita. Indartsu zegoen arren, neguak gehiago egin zion, neguak lortu zuen borrokaren garaipena, eta hasieran garrantzirik gabeko katarro bat izan zena, gaitz larri bihurtu zen ondoren. Sukarra, egunetik egunera gehiago igotzen zitzaion, eta eginahalak eginda ere, ezin izan zuten bere heriotza ekidin. Orduz geroztik, errespetu handiz hartzen dute neguaren etorrera etxean, beti oroitzapen mingots eta tristuraz, baina beste alde batetik, lasaitasunez, aita zerutik laguntzen izango duten sinestea daukatelako.

Goizean, errotako jabeak herriko jaiak direla esan dio Antxoni, eta gauean mendi gainean kokatutako baseliza bateko jaia ospatuko dela. Antxon auzoko gazteekin batera joateko asmotan gelditu da.

Etxeko eginbeharrak amaitu ondoren, garbitu eta arropa garbiak jantzita, mendirantz abiatu da auzoko gazteekin batera. Mendian gorantz doazela, nabari da bertan dagoen giro aparta, akordeoi eta pandero doinuak somatzen dira. Bertara heldu direnean ikusitako jende pilarekin, harrituta gelditu dira gazteak. Gehienak dantzan ari diren arren, badaude hegal batean geldi-geldi dauden gazte lotsatiak ere. Iritsi berriak, laster murgildu dira bertako giroan, baita Antxon bera ere. Nahiko lotsatia den arren, lagunek zirikatuta ekin dio dantza egiteari. Antxon, estu eta larri dago, dantzan egiterako orduan baldar samara delako. Berak ere, lagunak baino gutxiago izan nahi ez, eta ekin zion hanka-paluak altxatzeari. Dantzan buru belarri dabilela, eskuineko hanka lurrean jartzean, nahi gabe, atzeko neskatxari oina zapaldu eta egin dion minarekin lurrera erori da. Antxonek berehala lagundu dio lurretik altxatzen. Antxon, gertatutakoaren ondoren oso lotsatuta dago, une hau ez zaio bat-batean ahaztuko. Antxon gorri-gorri eginda dago, larrituta, etsita azkenerako, egun honetako bigarren ezusteko txarra delako hau. Antxon pasa-pasa eginda dago, neskatxak nahiko lan dauka mutila lasaitzen. Hala ere, “istripuak” berriketaldi polita egiteko aukera eman die.

Neskatxa liraina da Mari, azalez zuri-zuria, eta eguzkiak ateratako pekak ditu bekoki eta masailetan. Ilea, zapi batez bilduta daukan arren, ile beltz kirimilatua ikusi dakioke bekokiaren ondoan. Ilea bildurik daukanez, aurpegia ederra ageri zaio, begi berdeak egiten duten distirarekin, Antxon txundituta dago, eta neskatxak egiten dion irrifarrearekin, adurra dariola.

gráficas amorebieta

Marik mendiaren magalean kokatuta dagoen baserri batean bizi dela esan dio. Mendiaren behealdean dagoen etxeetako batean, errekaren ondoan. Antxon, pentsakor gelditu da une batez, eta hau darabil buruan bueltaka,”errekaren ondoan kokatuta baldin badago, izan daiteke, goizean, errotan, leihotik barreka egon den neskatxa, bera izatea”.

-Antxon, zer darabilzu?

-Ez ez, ezer ez -erantzun du mutilak bat-batean. Baina, Antxonek bera izan den jakin nahi du, eta egia jakin nahian, itxurak eginez horretan saiatu da.

-Zu egon zaren taldeko denak auzokoak al zarete?

-Bai, ni bizi naizen etxe multzoan gazte gutxi gara, nire bi nebak eta alboko etxean bizi diren bi neba arreba -hori entzutean tente jarri ditu belarriak Antxonek-. Baina neba arreba horiek ez daude herrian, izebaren etxera joan dira denboraldi batez, gaixorik dagoela eta, badakizu, neskazaharra da eta.

-Orduan, egunotan, neska gazte bakarra zu zara erreka ondoan.

-Bai, halaxe da -erantzun dio Marik bete-betean. Hau entzun duenean, konturatu da Antxon, goizekoa bera izan dela. Hala ere Antxonek ez dio ezer esan.

Antxonek, lagunen deia entzun du etxeranzko bidea hartu behar dutela esanez. Bi gazteak hurrengo jairen batean elkar ikustekotan gelditu dira. Eta agur bezala, musu bat eman dio masailean Antxonek Mariri. Azken honek ezustean harrapatu du Mari eta eskua masailean jarririk, berari begira gelditu da, mendian behera desagertu den arte.

Zumetzezko aulki urdin batean eserita dago, zurrungaka, burua alde batera, ahoa zabal-zabalik, lozorroan sarturik. Neguko hotzean, beheko suaren ondoko epeltasunean lo.

-Aitona, aitona!! Esnatu!! -Ilobak aitonari prakatik tiratuz.

-Ummh?, bai, bai.

-Zer, Antxon, loaldi gozoa egin al duzu? –emazteak galdegin dio atetik.

-Bai, primerakoa, aspaldiko oroitzapenetan murgilduta ibili naiz.

Antxonek, bere ondoan esertzeko eskatu dio Mariri, eta amestutakoa kontatu dio, hau da, beraiek ezagutu ziren egun hartan inori ez esatea erabaki zuen hura. Oroitzapenetan murgilduta ibili ondoren, betirako isildu aurretik, egun hartan lotsagatik bere baitan gorde zuena kanpora ateratzea erabaki du azkenik. Baina Mariren erantzunak, aho-zabalik utzi du. Marik, erantzun horren zain urte asko zeramatzala aitortu diolako.

gráficas amorebieta

Iñaki Ereño - Batxilergoa, 2. maila

"Egiten dudana gustoko izan dadin ahalegintzen naiz"

BIZIRIK IRAUN

Beste egun latz eta beltza munduko pobreziarentzat.

Ate joka nenbilen egun euritsu hartan, blai-blai egina nengoen. Urduritzen hasia nintzen inork ez zuelako irekitzen. Gutxienez atari barruan ez zegoen euririk, nahiz eta zeuden itogin anitzek etengabeko soinua sortu, eratzen hasi ziren putzu hezeetan. Eskaileretan toki sikua bilatu ondoren jezartzea eta itxarotea erabaki nuen. Bost, hamar, hogei minutu eta amaren arrastorik ez. Putzua handitzen zihoan heinean barneko larritasunak berdin jokatzen zuen. Guztiz ilundu zen eguna ordurako. Goiko pisura igotzea otu zitzaidan.

Inoiz ez nintzen bigarren pisura igo, gezurra ematen badu ere ez nekien nor bizi zen goiko pisuan. Jende ugari ibiltzen baitzen eskaileratik gora eta behera. Heldu nintzenean lanpasean "ongi etorri" jartzen zuen, egia ote? Tok Tok. Odol estu nengoen zer aurkituko zain. Baina bost axola zer edo nor agertu. Hotzak hilik nengoen eta gosea sentitzen hasia nintzen.

Edna, nire ama, beti zebilen ernegatuta. Ia egun osoa ematen zuen atso zahar baten etxean, arratsalde partean egunerako ogia eta esnea ekartzeko. Gustukoa zen nire arreba Sophieren aurpegia ikustea ama bueltatzen zen bakoitzean. Orain etxe barruan egon behar zuen sehaskan lo, negarrik ez baitzen entzuten.

gráficas amorebieta

Berriro jo nuen atea, Tok Tok Tok! Bat batean esku hotz bat sentitu nuen sama inguratzen. Ahots erlats batek "Zer nahi duk?" galdetu zidan. Buelta eman nuen eta hori izan zen auzokidea ikusi nuen lehen aldia. Oso nekatuta zirudien gizon beltzarana zen. Izan ere nire auzoa beltzaranez beteta zegoen, esan beharra dago, nire lagun gehienak beltzaranak zirela. Goitik behera begiratu nion, desitxuratuta zegoen. Kamiseta zurian urradura bat zuen eta odola zerion bertatik. Gertatutakoa azaldu nion azkenean. Etxeko giltzak atera eta bere etxera sartzeko baimena eman zidan. Nola aldatzen diren gauzak pisu batetik bestera! Telebista bat zuen! Esne edalontzi bat atera zidan eta telebistari begira gelditu nintzen txundituta, bera komunean zegoen bitartean. Mahai gainean poltsa batzuk zituen hauts zuriz beteta.

Nire lagun Edwar ikusi nuen horrelakoekin pasadan egunean, amodioa hobeto egiteko zela zihoen. Egun guztia igarotzen zuen Sallyrekin musuka. Edwar eredutzat hartzen genuen gure kuadrilakoek. Bera zen hoberena denetan. Batez ere saskibaloian. Gainera vespino bat zuen, nondik aterako ote du dirua motorra erosteko? Horrela hurbiltzen zitzaizkion neskatila guztiak. Gero beti etortzen zitzaigun hau eta bestea egin zuela kontatzera. Guk bere mailara iritzi nahi genuen, baina ezin.

Hala ere bizitza honetan poztasuna zerbaitek ematen badit, Julie ikustea zen. Taupadak kontrolatu ezinik, gorputza sutan nuela ohartu nintzen, hizketan etorri zitzaidan lehen eta, zoritxarrez, azken aldian. Ondo gogoratzen dut nola izan zen, "Kaixo zigarrorik?" mutututa nengoela winston paketean gelditzen zen zigarro bakarra eman nion. "Mila esker. A! Julie dut izena." "James". A ze hutsa! Nire bizitzako emakumea ezagutzeko aukera galdu nuen. "James" hori izan zen irten zitzaidan gauza bakarra. Irribarre egin zidan eta betirako utzi ninduen bere armiarma sarean korapilaturik. Ile horixkak astintzen zituela buelta eman zuen bere lagun minarengana hurbiltzen zelarik. Hobeto esanda nigandik urruntzen zela. Momentu hartan ez nintzen kapaz deskripzio bat egiteko, nire bost sentiduak blokeatuta geratu baitziren. Bere lagunak pizgailua utzi eta lasaitasun osoz piztu zuen zigarroa. Bista altxatu eta keinu egin zidan.

Ama ez zen heldu. Ama ez zen inoiz heldu. Tirokatua izan zen kale erdian. Aio bizitzari. Hura kolpea!

Bi aste beranduago...

Zutik nintzen nire arrebari begia kendu gabe. Goiko pisuko beltzarana ez nuen berriz ikusi, baina egunero aurkitzen nuen esne pote bat ate ondoan.

Kalera irten nintzen zerbait lapurtzera. Ezin bainuen eskean hasi, O'Briendarren ohorea zapuztuko baitzuen. Nahiz eta arreba eta biok bakarrik gelditu. Aitak txikitan esaten zidan eskean aritzea pobreena zela, eta gu ez ginela pobreak, denen gainetik ohorea geneukala. Aita irlandarra zen. Bertara joan zen lan bat egitera baina ez da bueltatu, ez dakigu deus berari buruz, ezta bizirik ala hilik dagoen ere.

gráficas amorebieta

Ezin nuen gehiago, goseak jota nengoen, bizirik jarraitzen banuen nire arrebarengatik zen. Kalera irten eta bidean Edwarrekin topo egin nuen.

E: Zer da zutaz? Zenbat denbora ikusi gabe!
J: Ez nago umore onean. Dirua behar dut.
E: Nahi al duk diru erraza?
J: Bai noski. Zer egin behar dut!
E: Trouble tabernan galdetu ezak JJgatik, berak emango dizu lana.

Laguna agurtuta bertara abiatu nintzen. Beltzaranez beteriko taberna zen hura, tabernariari galdetu nion JJrengatik. “Azkeneko mahaian galdetu ezak mutil!” Lau beltzaran zeuden kartetan jokatzen. Pausu arinean hurbildu nintzen.

J: JJ jauna?
JJ: Bai neu naiz! Zer nahi duk?

Harrigarria! izoztuta geratu nintzan. Bigarren solairuko beltzarana zen.

J: Niretzat lana duzun galdetzera nator.
JJ: Ongi da, pasatu barrura, hemendik segi.

Gela ilun batera sartu ginen. Luzaroan jardun genuen hizketan gela txiki ilun hartan. Ze zulo beltzetan sartu ote naiz? JJ hitz eta mintz ziharduen ni arinago ikusi ez banindu modura. Ez zuen nitaz ezer galdetu. Lanari buruz bakarrik aritu zen.

Ez nuen beste erremediorik, sikario lanetan hastea baino. Lana hasi baino lehen, proba bat gainditu beharra nuen. Kaletik pasatzen den lehen pertsona akabatu. Edozein zela egin beharra ere berdin zitzaidan jada.

Gau hartan ezin izan nuen lorik egin. Batetik Sophie negar eta negar zebilen. Goizetan ate ondoan aurkitzen nuen esne potoa Sophierentzat gordetzen nuen dena, baina batzutan ez zen nahiko, oraingoan ere goseagatik ari zela negarrez uste nuen. Bestetik JJ nuen buruan. Amaren heriotza hain hurbil eta hiltzailea ez hain urrun ikusita gorputza dardarka nuen. Nork jakin nire ama berak hil ez bazuen? Edo berak agindutako sikarioren batek? Galdera guzti hauek burua golpeka zetozkidan burura. Amak ez zuen inoiz ezer txarrik egin. Lanean aritu gu elikatzeko soilik. Bihotz onekoa zen erabat. Lan eta lan eguneroko ogia etxera ekartzeko.

Une horretan, lana bukatu ostean andre zahar hura akabatzea pentsatu nuen. Edna esklabu moduan tratatzearren. Egunero bere zorua garbitzen belauniko, berriro bere lazoz betatako txakur madarikatuak zikintzeko. Honek ere ez du askorik iraungo.

Eguzkia sartu zen logelaraino egunonak ematera. Sophie azkenean lo zegoen. Jantzi eta kalera bidean joan nintzen JJrekin elkartzera. Atea zabaldu nuenean zerbait arraroa somatu

nuen. Ez zegoen esne potorik. Gutun txiki bat zegoen haren ordez. Hartu eta elkarteko ginen gunerantz abiatu nintzen.

Hamar minutu geroago kale itxi batean zegoen volkswagen beltz batera sartu nintzen. Espero nuena zegoen barruan.

JJ: Gauza horrela izango da: Tori pistola hau, bala bakarra daukazula ohartzen dizut. Horko kaleraino irtengo zara eta gurutzatzen duzun lehen pertsonari tiro egin. Ikusi nahi dut nola egiten duzun eta horretarako kapaz zaren. Kotxearekin segituko dizut poliki-poliki. Baina ez nauzu ezagutzen!- Bere ahotza zakartzen zihoan- Ongi da?! Amaitutakoan ihes egin. Bihar ikusiko gara Trouble tabernan. Galderarik? Ongi, ba lanera!

Seriotasuna azaldu nahi nuen, baina barrutik oso urduri nengoen. Pistola hartu eta bitan pentsatu gabe eginbeharrari ekin nion.

Dena gertatu zen oso astiro, bidera atera nintzen, norbait zetorrela ohartu, urduritasuna, larri nengoen, ito larria sentitzen nuen, atzera begiratu nuen, kotxearekin JJak segitzen zidan, zuhur, nire mugimenduak kontrolatzen. Berriro aurrera begiratu nuen, eta bat-batean denbora gelditu bailitzan gelditu nintzen. Hau ezin daiteke gertatu. Julie zen, ezagutu ninduen, niregana zetorren irribarre zabal batekin, bihotzeko hutsunea betetzen zidan irribarrea gero eta hurbilago neukan. JJ nire parera ailegatu zen autoarekin. Ezkerraldean nire amaren hiltzailea izan zitekeena ikusten nuen. Bere begi mehatxagarriek “egin tiro” esaten zutela nabaritzen nuen. Aurrez aurre nire odola zirkulatzen jarraitzeko arrazoia ematen zidan neskatxa, bere begi liluragarriekin “kaixo James” esanez. Eskerrean nigandik hurbil begi haiek niri begira. Bizirik iraun zu barik ..... PUM! Tiro bakarra ondo aprobetxatua izan zen.

gráficas amorebieta
gráficas amorebieta

Olatz Olasolo Goikoetxea - Batxilergoa, 2. maila

"Nerabezaroan ere literaturaz goza daiteke"

NORABIDE BARIK EZEREZEAN

- *Alto a la autoridad!* -entzun zuenetik zenbait ordu iraganak ziren.

Basoan zehar lasterka ibili zen Antxon ordu horietan zehar, poliziak harrapatuko zuenaren beldur. Haritz handi baten enborrean jarri zuen eskua lurrera eror ez zedin. Hotz eta heze zegoen egurra eta bere eskuaren ondean inskribaturiko izen batzuk: Miguel eta Ana. Ilargiaren distirak argitzen zuen gaua, bere izpiak zuhaitzen artetik iraganez beldurrezko itzal luzezkak marrazten zituzten lurrean. Antxon harrapatzeko zain zeuden mamuak balira bezala, iluntasunean murgildutako mamuak. Ez zegoen lanbrorik basoan, baina bere gorputza, gorantz luzatzen zen gandu mehe batez inguraturik zegoen eta ahokada bakoitzean, ganduari bizia ematen zuen lurrin gehiago botatzen zuen bere bihotzaren erritmo azkarra jarraituz.

Ez zegoen poliziarik inguru hartan eta lurrean eseri zen udazkeneko hozto mantearen gainean. Eskua txamarraren poltsiko batean sartuz, hauts zuriz betetako poltsako bat atera zuen. Hauts hartan zegoen bizitza bat, heriotza bat, izaera bat, dagoeneko aldaezina eta iraupen itxaropenik ez zuena.

Ez zuen Antxonek gauza hauetan bere gogoa eta, ohizko zuena egin zuen, bere bizi mantendu bihurtu zena. Trebezia handiz prestatu zuen xiringa, besoerantz punta zorrotza

gráficas amorebieta

zuzendu zuenean ezin zuen eskua geldiarazi, dardarka ari zitzaion eta ezinaren aurrean, antsia bere gorputzaz jabetu zen. Gehiago estutu zen besoa lotzen zion lokarria eta berriro saiatu zen, berriro ezin. Zerbaitek edo norbaitek dosi hura hartzen galeraza nahi balio bezala zen, baina Antxonen antsiak mugak gainditzen zituen. Esku batekin jaso zuen xiringa eta zezenei egiten zaien antzera, bere besoan tinkatu zuen, ia hezurreraino iritsi arte. Oihu itzali bat irten zen bere barrenetik. Isurkai hiltzailea bere zainetan zehar zabaldu zen, bidean aurkitzen zuen guztia suntsituz. Ahul sentitu zen Antxon, ezin zion bere gorputzari ere eutsi, begiak lausotzen zitzaizkion eta begirada itzaltzen, oso urrutiko edozein puntutara zuzendutako begirada. Bere besoko xiringa ere ezin zuen atera eta lurrean etzatzen amaitu zuen, hosto mantearen gainean amaitu zuen, zuhaitzen artean eta izarrez beteriko zeru ilunaren azpian amaitu zuen, ilargiaren begiradapean, amaitu, amaitu…

Argi itsugarri batek esnatu zuen, inondik ez eta leku guztietatik zetorrena, dena zuritasun garbi batez estaltzen zuena. Eta ez zen elurra, ez maindire zuriak ere, hura ez zen ezer, ezerezaren gainean zegoen eseririk, orri txuri baten marraztuta bezala, baina hala ere oso gustora. Han ez zen hotzik ez berorik ere nabaritzen, ez zuen goserik ez egarririk, ezta Minik ere.

Zeruan egotea bezala zen, baina hori ezin zezakeen berak jakin, ez baitzen inoiz zeruan egon, ez baitzuen inoiz aingerurik ikusi eta ez zuelako horrelako kontuetan sinesten. Ez zituen bere ohizko erropak soinean, jantzi zuri bat besterik ez zuen, praileen antzekoa eta hankutsik zegoen.

Harridurazko jarrera bat hartu beharko zukeen baina han ez zegoen jarrerarik hartzerik, ez ezertan pentsatzerik, ez sentitzerik…, zutitzen saiatzen erori egin zen, nola egon daiteke zutiturik ezer ez dagoen leku batean? Grabitateak huts egingo balu bezala zen. Zutitzea lortu zuenean ere, ez zuen desberdintasunik nabaritu, eserita edo zutik egotea berdina zen. Zutik zegoen, ibiltzeko prest, baina nora joateko? Ez zegoen biderik, ez inora abiatzeko puntu finkorik, hasiera eta amaierarik gabeko lekua zirudien.

Giza hezurrez eraikitako etxe bat azaldu zen bapatean Antxonen atzean eta beldurra sentitu zuen. Orain arte ezer ez zegoen lekuan beldurrezko sentsazio bat azaldu zen, oso sakon iristen zena. Baina bazegoen zerbait etxe hartan beldurra baino indartsuago zulatzen zuena, erakarpen misteriotsu eta oso indartsu bat zabaltzen zuen eraikuntza hark. Antxon bere gorpua kontrolatu ezinik eta aurka ezer egin gabe, etxerantz zuzendu zen poliki-poliki, beldurrarekin batera erakarpena ere handitzen zelarik. Atariraino eraman zuen erakarpenak. Etxea gerturik ikusten zuen izuturik eta mugitu ezinik, ez zuen lehiorik etxe hark eta ez zen etxea ere, etxe baten aurrealdeko pareta besterik ez zegoen, milaka hezurrez osatutakoa. Ate bat zegoen pareta haren erdian eta bertan jantzi beltzez jantzitako norbait, Antxon bezala prailen antzera, baina honek aurpegia ezkutatzen zion txano bat zeraman. Beltzez jantzitakoak barrura sartzera gonbidatzen zuen Antxon keinu bat eginez eta jasanezinezko indarrak bertara bultzatu zuen.

gráficas amorebieta

Kontu handiz sartu zituen oinak etxe barrura eta barruan zegoenean, irteerako atea ezerezetik irtendako beste milaka ateren artean nahastu zen, beltzez jantzitako desagertzen zen bitartean. Irteerako atea zegoen haien artean, baina non?.

Denak airean zintzilik bezala, ezerezean flotatzen zuten eta denak kolore beltz berekoak ziren. Atzealdean zuena ireki zuen konbentziturik, baina han ez zegoen irteerarik, beste milaka ate berdin baizik, denak beltzak eta ezerezean flotatzen. Dena hutsune handi bat zen, zirudienez irteerarik gabekoa eta haietako ate bakoitzaren atzean gehiago zabaltzen zena. Atzerantz jo zuen izuturik ihes egiteko asmoarekin, baina beste ate baten kontra joan zen eta barrura begiratzean ate gehiago ikusi zituen. Laberinto batean galduta zegoen eta laberintoak berak desafiatzen zuen aurrera jarraitzera, aukera hau bakarra bezala azaltzen zelarik. Azkenik irekitako atea zeharkatu zuen Antxonek eta segidan zein ireki pentsatuz geratu zen. Denak berdinak zirenez, gertuen zuena irekitzea erabaki zuen eta ezkerreko eskua luzatuz beste bat ireki zuen, bere atzean dagoenekoz hain harrigarriak iruditzen ez zitzaizkion ate gehiago azalduz. Pentsatu gabe jarraitu zuen ateak irekiz eta zeharkatuz. Erotzekoa zen eta betirako bueltaka ibili beharko zuela ere pasa zitzaion burutik.

Zergatik gertatzen zitzaion guzti hura berari eta ez beste bati bezalako galderetan pentsatzen zuen ateak irekitzen jarraitzen zuela bitartean. Luzaroan egon zen Antxon horrela eta teknika handia hartu zuen ateak irekitzeko lanean, baina ate baten atzean, hurrengoa dagoenekoz irekia zuenean zerbait arraroa somatu zuen. Bere eskuman, bestetatik nabarmentzen zen ate bat zegoen, beltza besteak bezala eta flotatzen zebilen, baina bere barnetik zetorren argia sorteen marko batez inguraturik zegoen. Harantz jiratu zen Antxon eta zerbait berria aurkitu nahian aterantz lasterka joan zen ireki zuen arte. Eta han atzean ez zegoen ate gehiago irekitzeko zain, hura guztiz desberdina zen eta Antxonek irribarre egin zuen, gutxi iraungo zuen irribarrea.

Gela hartan, Antxonen bi alboetan, berak aurkitutakoa bezalako ate asko zeuden, bazirudien laberintoko ate gehienak hara zuzentzen zutela, kanporako bidea aurkitzeko aukera gutxi utziaz.

Baina hura ez zen harrigarriena, aurrealdean jende pila baitzegoen, Antxon bezala galduta eta ilara luze bat osatuz. Ilarak poliki-poliki aurrerantz jotzen zuen eta Antxon ilararen azkenean jarri zen. Ez zuen inor ezagutzen eta inork ez zuen ezertxo ere esaten, dena isilik zegoen, bakarrik oinen erritmo pausatuta entzun zitekeelarik. Ilara oso urruti iristen zen, ia ikusi ezin zitekeen lekuraino eta handik ere aurrerago zihoan.

Ilara hartan egon zen denbora luzez, poliki-poliki asko aurreratu zuelarik. Dagoenekoz bera ez zen azkena, bere atzean ezagutzen ez zituen beste batzuk zeuden eta hauek ere ez zuten ezer esaten. Bakoitzak begirada bere aurrekoaren bizkarrean finkaturik zuen eta Antxonen atzekoak zorrozki begiratzen zion. Orduan Antxonek berriro aurrera begiratu zuen eta bere aurrekoa beltzez jantziriko gizon baten aurrean zegoen. Hark kontrol postu bat zirudien, baina

gráficas amorebieta

ez zen berdina. Beltzez jantzitako gizonak hauts txuriz betetako poltsatxoak saltzen zituen, baina oso salneurri berezian, bihotz zati bat eman behar zitzaion. Horrela eginez gero ilaran jarrai zenezakeen, baina ordaintzen ez bazenuen, alboan beste bide bat zegoen HERIOTZA jartzen zuen kartel batekin. Antxonen aurrekoak bere bihotza hartu zuen eskuetan eta kartoizkoa balitz bezala zati bat kendu zion. Beltzez jantzitakoak kartoizko kaxa batera bota zuen bihotz zatia eta dosia eman zion Antxonen aurrekoari. Orain Antxonen txanda zen eta argi zeukan zein izango zen bere aukera. Bere bihotzean bilatu zuen eta kanpora ateratzean bihotz zati bat besterik ez zitzaion gelditzen. Zeukana eman zuen eta trukean poltsatxoa jaso zuen ilaran jarraituz. Lasai zegoen ordaintzeko zerbait izan zuelako eta pozik zihoan eskuetan zeraman poltsatxoari begira. Bihotzik gabe geratu zen baina hala ere pozik.

Ilaran jarraitu zuen Antxonek eta laister han urrutian beste kontrol bat ikusi zuen, aurrekoaren berdina, aukeraketa berdinekin. Eta aurrerago beste bat, eta beste bat.
Ihes egin nahi eta ezin, ilarak xurgatzen zuen bere azkenera eramanez…

- Esta muerto-esan zuen polizietako batek.

- Seguro que ha sido una sobredosis - besoan tinkotuta zuen xiringa seinalatuz.

gráficas amorebieta

Miren Gotzone Uresandi - Batxilergoa, 2. maila

"Euskalduna naz eta nire herria maite dot. Elantxobetarra izanik nire herriko euskera maite dot".

BESTE EGUN BAT

Itsas gizon zintzoa izan zen gure aita. Makina bat autu-mautu kontatu zizkigun bizi izan zen denboran. Bera itsasoan ibili zen sasoian munduan zehar hainbat herrialdetatik ibilia zen eta asko ikusitakoa. Istorio asko kontatzen zizkigun. Gabonak dira eta egun hauetan beti jotzen da iraganera, bizi zirenak oroitzera, aitarekin gogoratu naiz. Hark kontatutako istorioak etorri zaizkit burura. Hausnartzen hasi eta daukaguna estimatzen ez dakigula esaten zidala ohartu naiz. Horregatik papera eta arkatza hartu eta gogoeta haietako batzuk idazteari ekin diot egunerokoan. Munduko hiru gaztetxoren eguneroko bizitzari buruz idazteari ekin diot. Kontakizun hauek irakurri ondoren guztiok daukagun bizi egoeraz eta munduan leku askotan dagoen bizi baldintzaz hausnarketa bat egitea proposatzen dizuet. Zuek zeuok atera nahi dituzuen edota egokiak iruditzen zaizkizuen ondorioak.

Nellore, Indiako ekialdea, goizeko seiak eta bost. Batchir, hamaika urteko mutil koskorra, bere ondotik dabiltzan ibiltarien zaratekin esnatu da. Beste egun oro bezala egin du lo, kalean, babes gisa arropa zulatuak eta zikinak soilik zituelarik. Jauzi batekin altxatu eta beste umeekin batera korrika doa hondartza neurrigabeetarantz. Denak ortozik eta aparra-mantarrekin. Milaka kaleko ume dauden txabolaz betetako gune batera iritsi bezain laster, patxadaz edateko astirik gabe hartzen duten te zaporeko ur gopor bat eskuratzen dute ongi etorri bezala.

gráficas amorebieta

Egun horretan lana aurkitu nahi baldin bada lasterka egin beharra dago. Batchir aditu bat da jada horretan; horregatik daramatza lau urte untzi zatikapenean lanean, bereak eta bi pasatzen. Azkeneko iritsi den itsasuntzia, alde baterantz erorita. Sasoi batean ganorazko petrolio-untzia izan zitekeena, guztiz herdoildua dago jadanik, gaixotua dirudi. Gaixoaren izerdi hotz zatarra bezalaxe, itsasuntziak kanporatzen zuen petrolioa; beltza, zikina, likina,... batzuen aberastasunaren ezaugarria esango luke baten batek. Kutsadura bazter guztietatik hedatzen, langileen oinak Euskal Herriko kostetan aurten izan ditugunen antzera, baina milaka aldiz beltzago.

Arduradunak, justuan heldu eta ia eutsi ezin duen mailua eta zintzel bat luzatzen dizkio. Zubira igo eta eskuratu eta balioa duen metalezko zati guztiaz jabetuko da. Torloju batetik hasita eskaratzeko sardeskara arte.

Ordu amaigabeen ostean eta lan nekagarri baten ondoren, norbaitek paper txiki batean sartuta kurryz betetako arroz pixka bat banatuko die, horixe izango da egun guztiko janaria, baina pozik dago Batchir. Zorioneko umea da, behintzat ez delako auzoko lagun asko bezala gosez hilko egun horretan.

Egunaren amaieran, eguzkiak aharrausi egiterakoan, bere distira galtzerakoan, langile guztiak, afaritarako janari apur bat erosteko lain balioko dioten rupia gutxi batzuk jornal gisa irabazi ostean, Batchir hirira bueltatzen da, non betiko espaloian lokartuko baita, noizbait guztia aldatuko dela amesten. Beste egun bat igaro da.

Mombasa, Kenia. Omar esnatu bezain laster fruta biltzera joan da nagitasun barik bere amarekin , bost anaia eta arreba txikia lagun dituztela. Honek bi hilabete dauzka eta amak bizkarrean lotuta darama, ehun batean bilduta, ez zaizkiolako baby sitterrak atsegin. Palmondo hostoekin egindako etxearen ondoan biltzen dituzte hainbat eratako frutak: mangoak, papaiak, feijoak... Aitak arrain irin zakuak kargatzen egiten du lan hirian, baina lanik ez daukanean bakarrik itzultzen da etxera. Bi urte inguru dira Omarrek ez duela bere aita ikusi, baina hori ona dela diotso amak, hala eta guztiz ere berak ez du ulertzen.

Amaren laguntzaz bultzatutako gurdian doaz etxetik bi ordutara dagoen herriko plazara. Zeukaten asto zaharra hil egin baitzen ahuleziak jota aurreko urtean. Hango beste fruta biltzaileei aurrea hartu behar zaie, garrantzi handia baitu toki ona eskuratzeak, gero salmentak ere neurri batean horren araberakoak izaten direlako.

Mangoak eta papaiak garbituta daude, Omarrek gaur salmenta ona izango dutela uste du. Gero eta saltzaile gehiago hurbiltzen dira, tamaina, forma eta kolore anitzeko frutekin, badaude arraina dakartenak ere. Eguzkiak indarra hartzen duen heinean, arrain ustelduaren kiratsak bat egiten du zuritutako mango azalei darien usainarekin, orduan merkatuko usaina jasangaitz bilakatzen da, baina Omar irribarretsu dago. Erosle asko etorri zaizkie, gainera ama alai ikusten du. Berak ez daki zenbat diru irabazi duten salmentetan, ez baitaki ez irakurtzen ezta idazten ere. Ardura zaion bakarra laster batean lana bukatu eta mendira itzultzea da, bertan Naminarekin elkartu eta jolasteko.

gráficas amorebieta

Eguzkiak sartzerakoan berriz ordu biko ibilbidea daukate etxeraino. Behin iristerakoan, amak arto irinez prestatutako talo batzuk erretzen ditu sutondoan ”familia guztiarentzat”. Omarrek taloari bigarren hanginkada eman baino lehen, nekearen nekez, loak hartzen du eta ametsetan, aitak bezala gogor lan egin eta Naminarekin familia bat osatuko duen esperantzaz. Beste egun bat .

Bilbo, goizeko zortziak eta laurden. Iratzargailuak esnatzen du Garazi iparraldeko irratiaren sintonia kaineroarekin: C’est la vie...txun parapa txun... Garazi gustura dago ohean, izaren artean goxo-goxo. Gaur ez dauka azterketarik, hori gutxi balitz ostirala da eta hurrengo egunean ez dago institutura joan beharrik. Amak hiru aldiz deitu behar izan dio esna dadin. Ur bero gozoaz dutxa atsegina, patxadaz, lurrina... Gaur ilea lotuko dut, atzo Leirek horrela eraman zuen eta polito baten geratzen zitzaion. Galtza beltzak ala beste orlegiak jantziko ditut, pasa den astean erositako kukuxumusuko kamisetarekin ondo doakit, edo hobeto Bartzelonan erositako jertsea, ondo doa zapata berriekin...ez! hobe prakaz aldatzea.

-Garazi!!!!! Berandu egingo zaizu! Santiamen batean behean nahi zaitut !!

-Bai ama... oraintxe noa.

Gosaria prest, madalenak ez dira nire gustukoak eta ez ditut jan. Gehienetan laranja zukua, kafesnea eta tostadak jaten ditut.

Eskolatik bostehun metrotara bizi banaiz ere kotxez joaten naiz gurasoekin, bestela lagunei esaten diet eraman nazatela. Eskola? Beti azterketez gainezka, egunen baten itota aurkituko gaituzte. Izugarrizko gogoa daukat martxoa iristeko. Ikas bidaian goaz Mallorkara, ze ondo! Txarrena bien bitartean ikasi egin behar dela. Gurasoak beti ekinean aritzeko esaten digute. Ikasi, ikasi, ikasi eta despistatzen zarenean….ikasi! Doazela pikutara!! Batzuetan pentsatzen dut ezerk ez duela merezi, baliteke gero langabezian egotea, zer ikasi dezaket... Beno ikusiko dut aurrerago.

Hirurak dira, banoa, zain izango ditut bazkaltzeko eta. Ea zorterik daukadan eta haragia dagoen, kokoteraino nago arrainarekin eta.

Mezua mugikorrean,... aitak beste aldetik mugikorra gordetzeko esaten. Eider da, ea gero irteteko gelditzen garen jakin nahi du. Mezua, gero deituko dizut, problems. Bazkaldu dut eta Eiderri deituko diot. Matrix ikustera joan gaitezke, itzelean dagoela komentatu dit Koldok. Gero Mc Donnalds-era joan gintezke afaltzera edo nahiago izanez gero Pizza Hut-era. Naiarak esan dit Aitziber eta Aritz ere etorriko direla. Eurekin gelditzeko deituko dizut, ondo badirudizu motorrean batu zaitzaket eguzkiak ilunabarrean. Beste egun bat.

Ez dakit aitak kontatutakoak egiak ote diren baina txikitan lokartzeko erabiltzen zituen ipuinak nik beste era batera ulertzea lortu du gure aitak.

Hertzainak taldeko kantuak dioen bezala ezer ez da berdin, baina nik neure buruari galdetzen diot, zer da berdin?

gráficas amorebieta

Mª Pilar Basteguieta - HHI-ko ikaslea

MARI ERRAUSKINAREN IPUINA

Behin batean herritik oso hurbil bizi zen neska gazte bat. Errauskin neska hau ez zen eskolan irakatsi diguten bezain polita. Ikatzaren pareko ile beltza. Begi handi eta beltzak zituen, begirada tristearekin. Oso argala, normalean baino argalagoa. Errauskinak ez zuen ama edo ahizparik. Neskamea zen eta oso txarto tratatzen zuten. Inoiz ezin zuen arropa dotorerik erosi, baina hau ez zen amaordearen errua, bere aitarenarena baizik ze diru gutxi ematen zion. Gainera ingurukoek argal egoteko esaten zioten, edertasuna eta argaltasuna lotuta zeuden. Beraz, ez loditzeko esaten zioten denek eta horrekin matxakatzen zuten.

Beste leku batzuk ezagutu nahi zituen, baina destinoak hor gorde zuen, beste leku batera joan barik. Neskak horrela esaten zion bere bizilekuko jendeari.

Denborarekin ezkondu zen eta Errauskinaren senarrak tabernaz taberna ematen zituen gau guztiak. Gau batean Errauskinak amets bat eduki zuen printze batekin. Umetan amak kontatzen zizkion ipuin haietariko batekoa izan zen. Amets hartan bere burua ikusi zuen pozik eta zoriontsu. Amets egindako printze horrek urrutira eraman zuen, biak pozik bizi ziren betirako.

Errauskina bizi zen lekuan ez zegoen ikuskizun politarik. Kaleko leku ilun batean bizi ziren. Horrez gain, zaratak izaten ziren normalean, jendea gosez hil egiten zen eta. Bestalde,

gráficas amorebieta

borrokek isiltasuna apurtzen zuten gauetan. Denak ohituta zeuden senarrek jipoitutako emakumeak ikustera. Inoiz ez zitzaien galdetzen senarrei zergatik jipoitzen zituzten.

Errauskinaren bizimodua ez zen umetan ametsetan dugun halakoa. Bere bihotzean bazekien leku urrun baten zegoela printze eder hura. Amets hark erabaki bat hartzera bultzatu zuen: etxetik alde egin eta beste leku batera joan hobeto bizitzera, ze bere ametsetan hori bazegoen.

Bere gauzak eta hainbeste urtetan zehar koltxoi azpian gordetako diruak hartu, dena poltsan ipini eta alde egin zuen. Senarra lanetik heldu zenean ez zegoen inor etxean. Emazte bila hasi zen baina alperrik, zortzi ordu aurrera joanda baitzen. Azkenean ez zion ardura handirik, emaztea ez zuen maitatzen eta. Etxean ez zuen hutsunerik somatzen. Bakarrik senarrak nahi zuen bakoitzean Errauskinak hankak zabaltzea, besterik ez zitzaiona axola. Konpon zedila bera bakarrik!

Bitartean, Errauskina urrunera joan zen bizitzera. Bere pentsamendua miseriatik irtetea zen, hainbeste urtetan pasatutako guztia amaitu zela. Mundu berri baten zegoen. Lehengo egunak kalean egin zituen. Zapatak apurtu arte ibili zen, lan bila, eta azkenean gizon batek eman zion lana, bere etxeko portalea garbitzeko. Atiko zahar bat alokatu eta lanean hasi zen. Bere pentsamenduetan gizon hura gauzarik onena zela.

Astero irabazitakoarekin jatekoan eta arropatan gastatzen zuen dirua, eta oraindik soberan zeukan etxeko tresnak erosteko. Gero eta zoriontsuagoa sentituz, “Perfekto” jaunarekin amets egiten hasi zen.

Baina goiz baten, portalea garbitzean, oihuak entzun zituen, Perfekto jaunaren emaztea, negarrez. Errauskinak lana amaitu eta etxera joan zen bizkor. Lan hori utzi eta beste portale bat hartu zuen garbitzeko, egunero Perfekto jauna ikusteak tripako mina sortzen zion eta.

Beste portale berrian ez zuen inor ezagutzen, baina goiz baten gizon bat pasa zen eta biak agur eta agur, eta gure andrea poztu egin zen. Hilabete batzuk pasa eta gero portalean jai bat antolatu zuten eta Errauskinak gonbidapena jaso zuen. Egun hartan dotore jantzi eta jaira joan zen, han denak berari begira. Azkenean bere ametsetako printzearekin dantza egitea lortu zuen. Zoritxarrez, gaueko hamabietako autobusera joan behar zuen eta korrika jaistean zapata galdu zuen. Etxera heltzean zapataz gogoratu zen baina sentimenduak bihotzean gehiago axola zitzaizkion: maiteminduta zegoen. Hortik aurrera beti ametsak egiten bere printzeaz, bere etxera etorriko zela zapatarekin. Eta hala gertatu zen, baina zapata ez zen sartu oinean, beraz Errauskina triste eta negarrez gelditu zen. Denbora pasa eta gero egun baten zapata aurkitu zuen zakarrontzian. A ze pena, amets hartatik esnatu beharra!

Errauskinaren bizitzan hiru printze igaro ziren. Lehenengoa bere senarra, ezkondu aurretik proposamenak bete ez zituena. Bigarrena ondo portatu zen baina haren emaztea jo egiten zuen. Eta hirugarren printzeak andregai perfektua nahi zuen, eta Errauskina ez zen, zapata ez zitzaiolako oinean sartu. Errauskin honek ikasi behar izan zuen printze urdinik ez dela existitzen.

gráficas amorebieta

Juan Maria Onaindia Kareaga - HHI-ko ikaslea

MOTXILA LEPOAN, LURRA HAINKETAN

Orduan konturatu nintzan bidaia hastera zijoala. Ordu luzeak eman ditut tabernako barra ertzean garagardo bat lagun, munduaren barrena ibilitako marinelen gertakizunak entzuten, urte luzeetan itxasoak zeharkatzen ibili ondoren hamaika kontu izaten bai zuten, erdiak egiak, beste erdiak gezurrak, baina nere irudimena hegan jartzeko gaitazuna zuten ipuin haiek. Beharbada Orduña hasi zen nire bidaia, taberna zahar haretako barra ertzean.

Nonbait irakurri nuen bidaia prestatzeko lanetan aritzea beste bidaia bat dela, hamaika denbora pasa dut nik lan horretan, gustoko dut ohe gainean munduko herrialdeetako mapak sbaldu eta irudimenaren zaldian toki batetik bestera zamalkatzea, ez da egongo munduan ni egon gabeko tokirik. Baina bazen garaia benetako abentura bat bizi izateko, Ertameriketara joatea erabaki nuen Mexikotik osta Ricar-ra, bidaia guztia lurrez egin eta bertako herritar arruntek erabiltzen zituzten garraio tresnak erabiliko nintuela erabaki nuen. Prestaketa lanetan hilabete luzeak eman ondore, heldu zen eguna, sei herrialde zeharkatzeko, hirumila kilometro nere aurrean eta motxila lepoan.

Ekainean irte nintzen etxetik, emaztea agurtu ondore, zirrara bat sentitu nuen sabelean, lehen aldia zen urte luzeetan banatzen ginela eta orduan konturatu nintzan bidaia hastera zihoala.

gráficas amorebieta

MEXIKO LINDO

Lehen parada Mexiko DF izan zen, bertan hiru egun egiteko asmoa neukan, gehien bat lurralde barrira egiteko, hegazkin bidai neketsuaren ondoren hotelera jo nuen eta nolako sorpresa, lan hona egin zuen gure agentziako lagunak, hotela ikusgarria bai zen, baina ez zen gehiago horrelako luxurik egongo, hegoalderaztz jotakoan ostatu xumeetan lo egiteko asmoa bai neukan. Gau hartan ez nuen lorik egin ordu aldaketa medio, baina goizean irrikatzen nengoen hiriko barrenak ikusteko, laister irte nintzen kalera, denbora gutxi eta toki asko aztertzeko, hiriko alde zaharrera joan nintzen, hiriburuari buruz topiko guztiak nituen entzunda, taxietan timatu egingo zaituzte, poliziek enganaitu eta dirua eskatuko dizute, kaleetan barrena lapurretan egingo dizute, eta ez noa esatera gezurrak direla, baina aipatutako izurrite bat ere ez nuen jasan izan, hiriko alderdi istorikoa jendez, komertzioz eta kaleko salmenta poztuz gainezka zeuden, atentzioa deitzekoa, komertzio bakoitzaren aurreko aldean gizon armatua egotea zen, hori egoeraren adiezgarri bezala. Kaleetan barrena buila zen nagusi, jendearen joan etorria, autoen bozina etabar eta han nengoen ni begiak hona edo hara bideratzeko astirik gabe aurreko aldean agertzen zitzaidan guztia ikusi eta memorian gorde nahian. Hauteskunde garaia zen egun haietan eta kaleak betiko koloretsuak izateaz gain banderola eta propagandaz beterik zeuden, ordu batzuk bueltaka ibili ondoren, “zokalora” jo nuen, “zokaloa” hiriko plaza garrantzitsuenari deitzen zaio ertameriketan, eta hiriburu honetakoa benetan ikusgarria da, alde batean alde zaharreko kaleak, bestean antzoki nazionala eta hiriko katedrala, benetan eraikuntza ikusgarriak dira hauek, toki honetan ere koloreak eta ikuskizunak non nahi agrtzen dira, bertan lekuko talde batek bere herriko jantziekin apainduta, beraien kulturaren ezaugarriak diren dantzak egiten dituzte gauden kanpotarren gozamenerako, baina hau dena gehiegi zen egun batera eta atsedentxoa hartzea erabaki nuen, taberna zahar batera hurreratu eta lehen “coronita” gozatu nuen, taberna hurak istoria, tertulia eta lasaitasunaren usainak zituen eta denbora batetan ahaztuta izan nituen kale iztuetako jendearen joan etorria, hiriko kaleetako autoen zarata eta zirkulazio kaosa eta argazki makinaz betetako kanpotar haiek, uste dut taberna hartan sartu zitzaidala Mexiko barruan.

Hurrengo egunean bidaiari hasiera eman behar nion, Oaxakara bidean jarri nintzan, azkenean abian zen egoalderantz eramango ninduen bidaia, bostehun eta hamazazpi kilometro nituen aurretik, hiriburutik irteten gutxienez ordubete eman genuen, periferia etxolaz betetako hainbat kilometro dira, bertan geratzen bai dira bizimodu hobe bat biltzen etorritako hegoaldeko familia txiroak.

gráficas amorebieta

OAXAKA

Arratsalde aldera heldu ondoren lehen lana, ordundik aurrera ohikoa bihurtuko zena; lo egiteko tokia bilatzea izan zen saila gertatu, oaxaka kanpotarrei zabaldutako herria bait zen, bertan ostatuak non nahi zeuden, galdera batzuk egin ondoren bilatu nuen ostatu merke baina eroso bat. Oaxaka herri lasaia eta dotorea da, kale zuzen eta koloretsuak, eta erdialdean zokaloa, non biltzen den herriko udala, merkatua eta bizitza soziala, taberna eta terrazak medio, baina herri honek hainbat ikustoki istoriko ere eskeintzen ditu, denetatik garrantzitsuena, Monte Alban da, bertan kokatzen bai zen Zapoteka-en hiri sakratua, gaur egun ere oraindik bistakoa da izan zuen garrantzia gelditzen diren astarnak ikusi ondoren. Hiria, herritik hamabi kilometrotara dago, eta goizean goiz abiatu nintzen autobus geltokira, autobus geltokira, autobus zahar baten mendi malgan gora luzez jo ondoren azkenean heldu ginan eta non agertu zen nire begien aurrean ikuskizun paregabea, milaka urtetako istoria zuen herri ikusgarria, hiria mendi tontorrean dagoen zelai zabal batean dago eraikita, zelaia piramidez inguratuta dago eta berauek ehundaka eskilara dituzte egitza desberdinetara zein eraikuntzen goiko aldera igotzeko, erdialdean templu bat dago kokatuta eta honen inguruan pelotan jolasteko zein erritu erelijiosoak egiteko erabiltzen zituzten plazaz inguratuta, hiri honen inguruan egin diren ikerketen arabera, Zapotekak astronomiari buruzko ikerketak egiteko ere erabiltzen zituzten hiriko hainbat eraikuntza.

Herrira bueltatu ondoren tentsio une baten lekuko izateko aukera izan nuen, PAN alderdia herriko plazan hauteskunde mitin bat ematen zegoen ordu berean baserritarren manifestazio bat zegoen abian, Teojomulko herriko alkate zinegotzien askatasuna eta bizi duten nekazaritza arazoarentzat irtenbide bat eskatzen, biak elkarren albotik pasatzerakoan tentsio momentuak bizi izan dira baina azkenean ez zen ezer garrantzizkorik gertatu, nekazariek bi egunez katedralaren aurreko aldean kanpatu zuten eta PAN alderdikoek mitina amaitu ondoren alde agin zuten. Bada kale bat zilarra lantzen dutenena ere, bera kale luze eta ederrez gai etarte

gráficas amorebieta

guztietan bitxi dendez betekoa da, benetan lan ederrak eskaintzen dituzte, erosi ditut pare bat bilarritako bueltatzen naizenean oparitzeko. Baina Oaxakaren inguruak zabalak dira eta loki interesgarriz belelakoak, kolektiboa deitzen dioten autoa hartu ondoren banoa San Bartolo de Coyotepec-era, kolektiboak taxia mota bat dira, baina norbera bakarrik joan beharrean autobus batek bezain geltoki ditu, esan besterik ez nirean zortzi lagun joan ginela, Coyotepec aurreko herriak bezala koloretsua da, baina berton zeramikagintza lantzen dute eta ematen du hori dela ogibide garrantzitsuena, ia etxe guztietan bai daude salgai beraien eskulanak, begira ematen duena zera da, esku lan guztiak beltzak direla, museo bat ere badago herrian non erakusten diren bertako jantziak eta ohiturak, herri hauek turismoari begira eratzen ari dira eta banoa, nik ertameriketa sakona ezagutu nahi dut.

Chiapaserako bidaia luzea izan da, hamabi ordukoa, gehiena gauez egin dut, baina hori nire sorpresa San Cristobal de las Casas-era heltzerakoan, lekukoak baino kanpotarrak ugariagoak gara, ematen du iraultza zapatiztak turismo gulegoak baino eragin gehiago duela. Baina hemen gertatutakoa..... beste egun batetan kontatuko dizuet.

gráficas amorebieta

GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Arloa

KULTURA SAILA (HPS)

Bizkaiko Foru
Aldundia

Kultura Saila
Euskera Zuzendaritza